



Hiru aste pasatu dira

Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta udale-
tako ordezkariak osatutako Erakunde mahaiak esan du
Eitzagako hondakindegia-
ren egoera “larria” dela, baina
“kontrolpean” dagoela. Lehentasuna Joaquin Beltran eta
Alberto Sololuze langileak erreskatatzea dela esan dute.
Hiru aste daramatzate desagertuta • 4

"Txinara lanera bueltatu gura nuke datorren hilean"

Durango | Matxalen Palacio durangarrak lau urte daramatza Txinan lanean. Koronabirusaren eraginez, enpresak etxera joateko gomendatu zion. Hara noiz itzuliko zain dago. • 2-3





Martxoaren 2tik 31ra

UDABERRIKO ESKAINTZAK

Hile honetan Schmidt-en, gozatu itzazu udaberriko eskaintzak gure sukaldeen eta jantzigelen modelorik onenetan. Etxe batean, txapitula-formako apartamentu batean zein mendiaren magalean bizi bazara ere, eta hori koloreak edo egur eskuilatua gogoko baduzu, guztiz pertsonalizatuak diren sukalde, jantzigela eta altzariak diseinatzen ditugu, milimetrora. Zu ez zarela besteak bezalakoa, eta hori ospatzekoa da.

ESKATU HITZORDUA ONLINE EDO ZUZENEAN ZURE DENDAN

SCHMIDT

Murueta Auzoa z/g
Eroski Merkatal Zentroa
48220 Abadiño
www.homedesign.schmidt

> Batu zaitez geurera hemen





Txinako Wuhan hirian detektatu zen koronabirusaren COVID-19 aldaera, iaz. Azken asteotan, Txinatik mundu osoko hainbat herrialdetara zabaldu da. STUDIO INCENDO

"Koronabirusa ez da gripea bezain hilkorra, baina bere mutazioan dago kezka, gaitz ezezaguna da eta"

Alarma sortu beharrean, koronabirusari adi behatzeko unea dela dio Diego Sarasketa botikari zornotzarrak. Gripe sasoian hartu ohi diren higie-neurriak aplikatzea aholkatu du

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Hegaztien gripeak alarmarako bo-toia sakatu zuen 2005ean, mundu osoan, nahiz eta haren kasurik ez zen Euskal Herrira ailegatu. Lau urte geroago, 2009an, A gripea izan zen hedabideetako titularrak bete zituen gaitza. Hura bai, ailegatu zen Euskal Herrira. Eta hainbat hildako

eragin zituen. Orain, zinemako karteldegia berritu balitz lez, gaiz-toarena egiten duen aktore berri bat du munduak: koronabirusa. Alarma egoeran ipini ditu munduko herritarrak, baina ikusteke dago ea lehen aipatutako pandemia bien modura, etorritako moduan joango ote den datozen hileetan zehar.

Bitartean, alarma sortu beharrean, osasun adituek adi egoteko gomendioa egin dute. Diego Sarasketa botikari zornotzarrak halaxe dio: "Alarmarik ez, baina adi egon behar dugu". Lasaitasunerako hainbat azalpen ere eman ditu: "Koronabirusak ohiko gripeak baino hilkortasun tasa txikiagoa

du. Kutsatu direnen %2 baino gutxiago hil dira. Arazoa ez da hori. Arazoa da gaixotasun ezezaguna dela, eta osasun erakundeek ez dakitela oso ondo zein mutazio izan dezakeen etorkizunean. Ohiko gripearen DNA ezaguna da eta haren mutazioak aurreikusi daitezke. Baina koronabirusaren DNA ez da ezagutzen. Ez dakite nola egin dezakeen mutazioa, eta, oraingoz, ez dago horren aurkako txertorik".

Higie-neurriak zainduz gero, birusaren zabalkundea eten daitekeela dio Sarasketak: "Ohiko gripearen modu berean kutsatzen da koronabirusa. Kutsatuta da-

goenak botatzen dituen listu tantatxoak arnastuta edo fluido- nahasketagaz. Eskuak garbituz gero, edo ez tul zein doministiku egiterakoan ahoa ukondoagaz edo musuzapi batez estaliz gero, mugatu egiten da zabalkundea".

Dena dela, Sarasketak lasaitasunerako deia egin du. Gomendio higienikoei jaramon egitea eta gripearen antzerako sintomaren bat izatekotan medikuarenera jo-tzea aholkatu du. Bestale, gogora ekarri du koronabirusak ez duela arrisku handirik eragiten herritar osasuntsuengan. Osasun arazo larria dituztenak leudeke arrisku egoeran.

"Kanpokoak garen-oi etxera itzultzeko gomendatu ziguten. Han bizi direnei, etxean gelditzeko"

DURANGO • E.H. / I.G.

Matxalen Palacio Atxutegi duran-garra Txinan bizi da. Koronabirusa dela-eta, bere enpresak etxera itzultzeko aholkua eman dio. Dato- rren hilean Txinara itzultzea gura luke. Enpresa-zuzendaritzako mas- ter bat egiteko beka batez joan zen Txinara. Tianjing-eko Unibertsitate Teknologikoan urtebete egin zuen ikasten. Asiagaz maitemindu zen. Lau urte eta erdi daramatza Txinan.

Zer dela-eta joan zinen Txinara bi- zitzera?

Master bat ikastera joan nintzen, eta gero, kontratua eskaini zida- ten. Harrezkero, han bizi naiz. Lau urte eta erdi igaro dira.

Non egiten duzu lan?

Enpresa txinatar batentzat lan egiten dut. Altxairua eta kobrea

saltzen ditugu, Hego Ameriketa- ra eta Europara. Produktua sal- tzeaz gainera, enpresara datozen bezeroekin egoten naiz eta Txina erakusten diet.

"Kanpokoak garen-oi etxera itzultzeko gomendatu ziguten. Han bizi direnei, etxean gelditzeko"

Koronabirusaren aurrean, zein neurri hartu dute zure enpresan?

Kanpokoak garen-oi etxera itzultzeko gomendatu ziguten. Han bizi direnei, etxean geldit- zeko eta handik lan egiteko go- mendatu diete. Astean birritan irten daitezke janaria edo ura ero- stera. Baldintzak ez dira oso onak, janari gutxi dutelako.

Zer diotsue han bizi diren lagu- nek?

Beldur dira, enpresak geldi daudelako. Bestalde, urte be- rria ospatu dute Txinan. Opor ostean ezin izan dute lanera bueltatu. Eta ez da hemen legez. Lan egiten ez badute, ez dute kobratzen.

Noiz itzuli gura duzu Txinara?

Hilabete itxaron eta ea buelta- tzen naizen. Ofizialki datorren hilean joan gura nuke, han gelditzeko.

Zein iritzi duzu koronabirusaren aurrean hartu diren neurrien in- guruan?

Uste dut berba asko egin dela eta den egoera izateko beldur gehiegi sartu digutela. Izan di- ren ondorioak ez dira nahikoa beldur hau sortzeko.



**MATXALEN PALACIO
ATXUTEGI**

Durango, Txinan lanean



ALESSANDRO
RUTA

Otxandio, kazetaria

“

**Milanetik Otxandiora
bidean izan genuen
koronabirus kasuen berri”**

—

OTXANDIO • JONE GUENETXEA

Italia iparraldean hamalau lagun hil dira koronabirusaren eraginez. Alesandro Ruta Milanen izan zen eguenean. Milandarra den arren, Otxandion bizi da. Joan zen eguenean Milanen izan zen. Euskal Herrira itzuli zen gurasoekin. Bidaian zeudela konturatu ziren koronabirus kasuak agertzen hasi zirela Italia iparraldean. Hamaika herri isolatu dituzte eta 528 kasu artatzen ari dira.

Zelan bizi dituzue Italian sortu diren kasuak eta gobernuak hartutako neurriak? Lasai itzuli zarete Euskal Herrira?

Eguenean Milanera joan nintzen eta gurasoak nigaz etorri ziren Euskal Herrira. Milanetik Otxandiora bidean izan genuen hango koronabirus kasuen berri. Milanetik 60 bat kilometrorra gertatu da. Lehe-

nengo kasua Godogno inguruan agertu da.

Baduzu senide edo lagunik inguru horretan?

Bai, lagunak eta osaba bat hantxe bizi dira. Lagun bategaz whatsapp bidez komunikatu nintzen. Esan zidan erreakzioa

“Erreakzio hau oso italiarra da. Ez dut esango hipokondriakoak garenik, baina gertu ibiliko gara”

gehiegizkoa dela. Gripe gogor baten neurriko gaixotasuntzat hartu dutela.

Neurri gogorrak hartu dituzte Italian.

Bai, baina erreakzio hau oso italiarra dela esango nuke. Ez dut esango hipokondriakoak

garenik, baina gertu ibiliko gara. Kezka piztu da, eta jendea azterketak egiten hasi da. Geroago eta kontrol gehiago dago, eta kasu gehiago agertuko dira.

Zure hirian, Milanen, oraingoz ez da horrelako kasurik agertu.

Batez ere iparraldean gertatu da, eta herri batzuk itxi egin dituzte. Baina Milanen gertatu izan balitz, ez dakit hiria itxiko luketen. Hiri garrantzitsua da ekonomikoki, eta kalte handia izango litzateke. Esan dutena da 18:00etatik aurrera etxean egoteko, eta ahal den neurrian etxetik lan egiteko. Venezian ere inauteriak bertan behera utzi dituzte.

Zure familia Euskal Herrian dago egun hauetan, baina zelan bizi dute hau guztia?

Nahiko kezkatuta daude, amama Milanen bizi da eta.



GAIZKA BADIOLA
SALTERAIN

Elorrio, Turinen bizi da

“

“Informazio larregi jasotzen ari gara, eta ez dakigu zer den egia eta zer ez”

—

ELORRIO • J.G.

Gaizka Badiola elorriarra Turineko enpresa batean lanean dabil. 2006tik hona Italian bizi da. Inguru horretan hiru koronabirus kasu agertu dira. Beldurrez baino, kezka bizi du egoera.

Zelan bizi duzu koronabirusaren agerpena Italian?

Turinen bizitza normala egiten ari gara. Hemen, oraingoz, hiru kasu agertu dira. Gai honi buruzko informazio larregi jasotzen ari gara eta ez dakigu zer den egia eta zer ez.

Ezarri dute prebentzio neurriak zuen inguruan?

Ez. Lanean, esate baterako, sukarra izanez gero, badaezpada etxean gelditzeko eta horrelakoak bai, baina, bestela, ezer be-

rezirik ez. Koronabirus kasuak gertatu diren herrietan neurriak hartu dituzte. Beste leku batzuetan herriak itxi egin dituzte.

“Turinen bizitza normala egiten ari gara. Hemen, oraingoz, ez da kasurik agertu”

Gai honi buruz, igartzen duzu beldurrik zure inguruan?

Gure inguruan nahiko lasai gaude. Beldurtuta baino, kezkatuta gaudela esango nuke. Jendea kontzientzia hartzen ari da beldurragaz ez dela

“Jendea kontzientzia hartzen ari da beldurragaz ez dela ezer konpontzen”

ezer konpontzen. Informazio nahasia izateak ere ez du laguntzen horretan.

Informazio asko zabaltzen ari da Italian?

Neurriak hartu dira informazio guztia izan barik. Eta, gainera, hedabideen aldetik alarma zabaldu da.

Euskal Herriko familiak eta lagunek, zer esaten dizute?

Familiagaz berba egin dut honen inguruan, baina ez da aparteko ezer izan.



Ezagutu eta erabili Durangaldeko merkataritza gida euskaraz eta sarean!

merkataritza
gida sarean

anboto.org/gida



Merkataritza gidan parte hartzeko deitu: 946 217 902
Argazkiak - Datuak - Kokapena
(urtean 50€)

Hondakindegiko egoerak "larria" izaten jarraitzen duen arren, agintariek esan dute "kontrolpean" dagoela

Langile biak bilatzeko lanek aurrera segitzen dute. Abadiñoko EH Bilduk airearen kalitatea neurtzea eskatu dio udalari



Langileak lur-jausiaren beheko aldean lanean.

ZALDIBAR • J.D. / A.M. / E.H.

Eguaztenean erakundeen arteko batzarra egin zuten, Zaldibarko hondakindegia egoera baloratzeko. Iñigo Urkullu lehendakaria tartean zela, Eusko Jaurlaritzako hainbat sailburuk, Bizkaiko Aldundiko hainbat agintariek eta Zaldibarko, Ermuko, Eibarko, Mallabiko eta Elgetako alkateek parte hartu zuten bertan. Batzorde Teknikoan egindako lanei buruzko "balorazio positiboa" egin zuten. "Orain esan daiteke egoerak larria izaten jarraitzen duela, baina kontrolpean dagoela", azaldu zuen Jaurlaritzak ohar batean.

Lehentasuna desagertutako langile bien bilaketa lanak direla esan zuten. Hondakindegia inguruko osasun publikoari buruz,

dena "kontrolatuta eta etengabe monitorizatuta" dagoela azaldu zuten. Airearen, uraren eta inguruan ekoiztako elikagaien kalitatea, "zuzena" da, oharrean jasotzen denez.

Sutearen fokuren bat berpizteko arriskuak "bere horretan" jarraitzen du. Hala ere, "operatibo espezifiko bat" ipini dute martxan. Egunotan, helikoptero bat apar berezia botatzen ibili da hondakindegiko sutea amatatu eta zigilatzeke.

Eskariak Abadiñon

Martitzenean osoko bilkura egin zuten Abadiñon, eta hara bertaratutako dozena bat herritarrek airearen kalitatearen gaineko kezka agertu zuten. EH Bilduk neurketetarako beharrezkoak diren tresna guztiak ipintzea eskatu zion gobernu taldeari, "Elorrioko eta Durangoko udalek" egin duten moduan. Mikel Garaizabal alkatearen esanetan, airearen kalitatea Durangalde osora zabaltzen den kezka denez Amankomunazgoa litzateke hori kudeatzeko figurarik aproposena.

Aixola errekan egindako azken ur analisiek amonio kantitate handia dagoela berretsi dute berriro

Otsailaren 18an egindako ur analisikoak dira amonioari buruz plazaratutako azken datuak. Otsailaren 20tik aurrera, "isurketen zati handi bat kentzea lortu" dela dio URAK

ZALDIBAR • EKAITZ HERRERA

URAREN analisiek ondorioztatu dutenez, beste behin ere elementu bik gaintitu dituzte baimendutako "ingurumen-kalitate arauak" Aixola errekan: amonioak eta OEK indizeak. Elementu kutsatzaile organikoek degradatzeko beharko luketen oxigeno-kantitatea adierazten du OEK delakoak. URAK azaldu duenez, otsailaren 18an egindako analisikoak dira esku artean dituen azken datuak.

Bestalde, otsailaren 20an, lixibiatuak atxikitzeke lanei ekin zien URAK, lixibiatuok erreketara heltzea ekiditeko. Egun horretatik aurrerako ur-analisen emaitzarik ez dute eman oraingoz.



Hondakindegia inguruko uretan dabilta analisiak egiten.

Hondakindegiko isurketengatik "tasa ekologiko sendoa" ezartzea proposatu du Iñaki Arriolak

ZALDIBAR • EKAITZ HERRERA

Eitzagako hondakindegian gertatu denaren ondoren, neurri zehatzagoak hartuko ote diren zantzuak igartzen hasiak dira agintarien ahotan. Iñaki Arriola Ingurumen sailburua izan da hori iradoki duenetariko bat: "Ez da onargarria, ezta jasagarria ere, orain arte lez hondakindegietan

isurketak hain modu erosoan eta merkean egitea", esan du. Adierazpen horiek Bilboko Euskalduna jauregian egin ditu, bertan egindako Basque Ecodesign topaketan irekiera ekitaldian.

Zaldibarko "giza eta ingurumen hondamendiak" ekonomia zirkularra birpentsatzeko balio beharko lukeela deritzo.



Iñaki Arriola Bilbon egindako Basque Ecodesign topaketan. **BASQUE ECODSIGN**

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2020ko otsailaren 28a
18. urtea - 796. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretzi Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala, Igor Galarza Intxausti.
Maketazioa: Bea Sierrasesumaga Guezuraga, Nerea Azpiaz Beaskoetxea eta Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Elorrioko Udala eta AEK lanean dabilta etorkinei euskara eta euskal kultura hurbiltzeko

Zaintza lanetan dabilzan 18tik 45 urtera arteko 20 emakumek parte hartzen dute AISA ikastaroan. Ekimenagaz "pozik" daudela aitortu dute parte-hartzaileek

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Zaintza lanetan dabilzan 18tik 45 urtera arteko hoge emakume euskara ikasten dabilta Elorrioren udalari eta AEKri eskerrak. Senegaldik, Boliviatik, Ekuadorretik, Marokotik, Aljeriatik eta Errumaniatik Elorriora etorritako emakumeak dira eta euskarara hurbiltzea dute helburu.

AISA harrera ikastaro linguistikoaren bitartez, udalak eta AEK-k euskara eta euskal kultura hurbildu gura dizkiete Elorriora datozen etorkinei, eta baita bertakotzea erraztu ere. Ikastaroek 60 orduko iraupena dute, baina antolatzaileek azaldu dutenez, ondoren euskaltegian jarraitu dezakete emakumeek. "Hurbilpen ikastaroa amaitzean, euskaltegian bertan geratzea izango litzateke helburua, horrela euskalduntze prozesuagaz jarraitu dezakete emakumeek", azaldu du Izaskun Gisasola AEK-ko kideak.

Bestalde, Elorrioko Udalak jakinarazi du hainbat parte-hartzailek ikastaroa "labur" geldi-

tzen zaiela esan dietela, eta luzaizeko proposamena egin dietela. "Guretzat oso garrantzitsua da bai emakumeen jabekuntza lantzea, bai gure hizkuntzara eta gure kulturara hurbiltzeko aukera ematea, eta horregatik eskaini diegu jarraitzeko aukera", esan du Jesus Maria Guridi euskara zinegotziak.

Parte-hartzaileak pozik

Elorrioko taldeko emakumeek adierazi dute ikastaroa "asko gustatzen zaiela" eta zenbait berba euskaraz esaten dituztela orain. "Ikastaroari eskerrak, elkar ezagutzeko aukera izan dugu, eta orain, gainera, euskaraz agurtzen dugu elkar", azaldu dute ikastaroan parte hartzen duten kideek. Juana Quispe boliviarrak esan du euskaraz berba egiteak "beldurra eta lotsa" ematen zizkiola hasieran. "Jendeak barre egingo zidala uste nuen, baina ezetz ikusi dut. Orain, egun on eta arratsalde on esaten diot jendeari", esan du Quispek.



18tik 45 urtera arteko emakumeek parte hartzen dute ikastaroan.

EH Bilduk AHTaren inguruko bilera egiteko eskatu dio Atxondoko Udalari

Herritarren zalantzak argitzeko, Muntzaratzen bulego bat zabaltzeko diote Atxondoko eta Abadiñoko Udalek

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

EH Bilduko kideek aste honetan prentsari jakinarazi diotenez, herritarrek hainbat eskaera helarazi dituzte Atxondoko Udalari. Alde batetik, AHTaren inguruko bilera informatibo bat egiteko eskatu diote udalari, obren epeak eta egutegia azaldu dituzten, besteak beste. Kapela eta Elorrixa auzoko kideekin bilera informatibo bat egiteko ere eskatu dute, eta hauei behar duten laguntza tekniko eta juridikoa emateko.

Bestalde, ingurumenaren jarraipen juridikoa egingo duen aholkulari bat kontratatzeke eta oposizioari hilero AHTaren ingu-

ruko informazioa helarazteko ere eskatu dute.

Bulegoa Abadiñon

Bestalde, Atxondoko eta Abadiñoko udalek aste honetan jakinarazi dute Aldi Baterako Enpresa-elkarteak (ABEE) informazio bulegoa zabaltzeko duela Muntzaratzen, herritarrek proiektuaren inguruan dituzten zalantzak argitzeko. Beraz, zalantzak dituzten atxondarrak eta abadiñarrak bulego horretara joan daitezke. Bulegoa astelehenean eguenera egongo da zabalik, goizean eta arratsaldean. Barikuetan, 9:00etatik 14:00etara.



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad de la Merindad de Durango



Durungaldeko Behargintza
Tel.: 94 623 25 22
www.mdurango.org



JASONE URIARTE
BARNE DISEINUAN GRADUA
HAZILANen IV. edizioako parte-hartzailea

Zergatik erabaki zenuen HAZILAN programan parte hartzea?

Mastera amaitu berri nuen Bartzelonan, eta etxera itzultutakoan, lana bilatzeko prozesua errazagoa izango zelakoan nengoen arren, oso galduta sentitu nintzen. Posta elektronikoko HAZILAN programako informazioa jaso nuen eta etxean itxaroten geratu barik programan parte hartzea erabaki nuen.

Zein zen sentitzen zenuen beharrianik handiena eta programak asebetetzen lagundu dizuna?

Hasieran, nire premiarik handiena lana topatzea zen, baina programak, lana topatzeaz gainera, neurri burua hobeto ezagutzen lagundu zidan. Nituen trebetasunak indartzen eta arlo profesional eta pertsonalean nituen gabeziak aurkitzen lagundu zidan.

Taldeko prestakuntza fasean landutako hainbat alderditatik, zein azpimarratuko zenuke balio erantsi lez langabezian dagoen gazte batentzat?

Norberaren eta beste partaideen esperientziak, edo lan bilaketa prozesuari buruzko kontakizunak entzutea, horrek nire bizitza ikusteko modua birplan-teatzea ekarri zidan eta.

Momentu honetan, zer ari zara egiten?

Praktikak egin nituen enpresan urtebete daramat lanean dagoeneko. Barne diseinuan lan egin gura nuen, eta praktikak egitea izan zen horretarako aukera. Zortea izan nuen eta gogor ekin nion haien arreta lortzeko eta bertan gelditzeko.

HAZILAN programan parte hartzeak zein aldaketa eragin ditu zure lan egoeran eta maila pertsonalean?

Lan munduari dagokionez, orain askoz ere seguruago sentitzen naiz laneko erabakiak hartzean, baita hornitzaile eta gremioekin hitz egitean ere. Maila pertsonalari dagokionez, programan parte hartzeak "aldaketa eragin zuen nigan". Arlo psikologikoa asko lantzen da programan, eta maila pertsonalean momentu horretan aldaketa bat behar nuen. Programa hasi nuenean eta programa amaitu nuenean, pertsona ezberdina nintzela sentitu nuen eta eskerrak eman behar dizkiet HAZILANi, Josuri eta Aitziberri.

Nori gomendatuko zenioke HAZILAN programan parte hartzea, eta zergatik?

Ez nuke profil zehatz batera mugatuko, egoera guztietara egokitzen da eta. Lan munduari dagokionez, orain askoz ere seguruago sentitzen naiz laneko erabakiak hartzean, baita hornitzaile eta gremioekin hitz egitean ere. Hala ere, nire taldean bazegoen langabezian denbora luzea zeraman jendea, baita momentu honetan lanean egon arren ametsetako lanbidea lortu nahi duena ere. Egoera horretan daudenentzat ere oso interesgarria izan daiteke programa.

Durango herritarrek martxoaren erdialdean ekingo diote hondakin organikoak bereizi eta batzeari

Zerbitzua martxan ipini baino lehen, martxo hasieran, udalak bilketarako informazioa eta edukiontzietan erabili beharreko txartelak bidaliko ditu etxeetara



Merkatu plaza ondoko edukiontzia.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durango udalbatzak osoko bilkura egin du asteon, eta Aritz Bravo EH Bilduko zinegotziak hondakin organikoak buruzko asmoak zeintzuk diren iragarri du. Durango Udalak martxoaren erdialdean ekin gura dio hondakin organikoak batzeari. Horretarako, lehenengo, zerbitzuaren gaineko informazioa eta edukiontzietan erabili beharreko txartela bidaliko dituzte herritarren etxeetara.

Alde Zaharreko bilketak

Udalak hiri-hondakin bilketarako eta garraiorako kontratua aldatu du. Horrela, Alde Zaharreko bilketa zerbitzuan aldaketak egitea aurreikusten du. Batetik, Alde Zaharreko dendetako eta ostatuetako hondakinak modu zehatzagoan batzea gura dute. "Kontuan hartu behar da hondakin heren bi inguru merkataritzan sortzen dela. Bada, bilketa sistema berriak birziklatze tasa handiagotzea ahalbidetuko du", adierazi dute. Kamioi elektriko

bat arduratuko litzateke bilketaz. Bestalde, Alde Zaharreko auzotarreri begira, edukiontziz hornitutako bost puntu mugikor ipiniko dituzte, ordutegi jakin batean ipini eta erretiratu direnak.

EH Bilduk, Herriaren Eskubiak eta PSE-EEk kontratua aldatzearen alde egin dute. EAJ abstentitu egin da. Mireia Elkororibe jeltzaleak esan du edukiontzia mugikorraren sistema "zalantza" ikusten dutela. "Ez gaitu konbentzitzen. Kamioien joan-etorria zazpi eguneko izango litzateke Alde Zaharrean. Zaratak bizilagunen deskantsuari eragingo diotelakoan gaude", esan du. Bestalde, erabakia "inon eztabaidatu barik" hartzea egotzi dio gobernu taldeari.

Asteburu honetako garbiketa

Zapatuan egitekoa den 40 Minutu Rock jaialdiari begira, udalak garbiketarako neurriak indartu ditu. Joan zen domekan gertatutakoa ekidin gura du, Durango kaleak zaborrez beteta esnatu ez daitezen.

Durango Udalak etxeetan banatutako liburuxka "alderdikoia" dela kritikatu du EAJk

Jeltzaleen esanetan, "EH Bilduk urte askoan esan du diru publiko finantzatutako argitalpenetan talde politiko guztiei egin behar zitzaizela lekua". Oposizioari tokirik ez egitea leporatu diote

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durango EAJ "harrituta" eta "haserre" dago. Gobernu taldeak buzoietara helarazitako liburuxka durangarreganako "errespetu falta bat" dela salatu du. "Liburuxkak udaleko logotipoa dauka. Durangar guztien diruz finantzatutako 32 orri oso dira eta ez zaie ezta tarte bat ere egin oposizio alderdiei", azaldu du Mireia Elkororibek.

Oraintsu, Durango gobernu taldeak gobernu plana azaltzen

duen liburuxka bat banatu du herriko etxeetan. EAJren iritzian, "helburu alderdikoekin" egindako liburuxka da, eta salatu du oposizio alderdiek ez dutela tokirik bertan. "EH Bilduk urte askoan esan du diru publiko finantzatutako argitalpenetan talde politiko guztiei egin behar zitzaizela lekua. Harrigarria da orain liburuxka alderdikoi hau topatzea", esan dute.

Bestalde, liburuxkaren gastua eta gobernu taldeak otsailaren 11n

San Agustin kulturgunean egindako aurkezpena ere kritikatu dituzte jeltzaleek. EH Bilduko Iker Urkizak erantzun du "lau urteko gobernu plana aurkezteko" (liburuxka egitea, banatzea eta San Agustinen aurkeztea), 16.903 euro erabili dituztela. Herriaren Eskubidea taldeko Jorge Varelaren esanetan, aurreko legealdian baino merkeago aurkeztu dute gobernu plana, orduan "32.461 euro" erabili zirelako "urte biko" plana aurkezteko.



Durango EAJko kideek joan zen barikuan egin zuten agerraldia.

Durango gazteek zabalik dute alokairurako diru-laguntzak eskatzeko epea

lazko etxebizitza alokairuak laguntzeko epea zabaldu du udalak

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durango gazteek etxebizitzaren alokairuari modu erosoagoan aurre egiteko aukera dute. Durango Udalak dagoeneko zabaldu du etxebizitzaren alokairurako diru-laguntzak eskatzeko epea, eta martxoaren 16ra arte izango da indarrean. Diru-laguntza horrek atzera begirako izaera du, hau da, 2019ko alokairuei lagunduko die. Horretarako, udalak 65.000 euro

baliatuko ditu. Bestalde, "gazteek gurasoen etxetik irteteko duten problematikaz" jabetuta, udalak diru-partida hori handitu du, datorren urtean egin beharreko eskariei begira. 97.000 euro izango dira.

2019ko alokairuagatik diru-laguntza eskatu gura duten gazteek www.durango.eus/dirulaguntzak webgunean kontsultatu ditzakete bete beharreko baldintza guztiak.



2019ko etxebizitza alokairuen diru-laguntzak eskatzeko epea martxoaren 16an amaituko da.

Zornotzako Harrera Taldeak 13.065 euro batu ditu Bizkargi taberna zegoen tokian kafetegi soziala zabaltzeko

Abenduaren 5ean hasi zuten dirua biltzeko kanpaina eta astelehen honetan amaitu dute. Kafetegian lanak egiten dabilta, baina oraingoz ez dute irekiera datarik iragarri. Edozelan ere, kafetegi sozialak Zornotzan errotzen ari diren familia migranteen zein herritar guztien topaleku izan gura du

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Harrera taldeak ereindako haziak loratzen hasi-ta daude. Joan zen abenduaren 5ean, dirua biltzeko kanpaina hasi zuten kafetegi eta dastategi sozial bat zabaltzeko ahal izateko, eta asteen eman diote amaiera. Herritarrek egindako ekarpen ekonomikoari eskerrak, 13.065 euro batzea lortu dute. Bizkargi taberna zegoen tokian izaera sozialeko dastategi eta kafetegi bat zabaltzeko baliatuko dute batutako dirua. Hartara, Zornotzan errotzen ari diren familia migranteen zein herritar guztien topaleku izango da Bizkargi. Azken hileetan, Harrera Taldeko kideak buru-belarri aritu dira kafetegia atontzeko lanetan, baina oraingoz ez dute inaugurazio datarik iragarri.

Kanpaina zenbakitan

Interneteko goteo.org atarian garatu dute kanpaina, *crowdfunding* lez ezagutzen den sistema erabiltuta. Hau da, kanpainan parte hartzeko interesa agertu duten herritarrek bakoitzaren poltsikoaren arabera ekarpen ekonomikoak egiteko aukera izan dute. 10, 20, 50, 100, 150, 300 eta 500 euroko ekarpenak egiteko aukera egon

da. Eta, guztira, 158 herritarrek egin dituzte dohaintzak.

Norbanakoen ekarpenak izan dira ia denak, baina hainbat elkar-terren babesa ere igarri da. Besteak beste, Zornotzako Talde Feministaren ekarpen ekonomikoak jaso du proiektuak. Baita Zaparrada Batukada taldearena ere. Eta ez dira falta izan Euskal Herriko beste hainbat tokitatik egindako ekarpenak. Izan ere, Skakeitan musika taldeko kideek sostengua

Talde Feminista eta Zaparrada batukada dira ekarpena egin duten elkarteetarikoz batzuk

agertu diote kanpainari. Horren erakusgarri dira ere Olatz Salvador eta Pello Armendariz musikariek emandako babesa.

Behin kafetegi soziala zabaltuta, egindako ekarpenaren esker ona jasoko dute parte-hartzaileek. Harrera taldekoek gosari berezi bat eta bertan ekoiztutako produktuen sorta bat eskainiko dute, besteak beste. Bestalde, panel bat ere ipiniko dute kafetegian, ekarpena egin dutenen izenak idatzita erakutsiko dituen.



Zornotzako Harrera Taldeko kideetarikoz batzuk.

Argindar kontratua Mañariagaz batera esleitzeko proposamena onartu dute Izurtzan

Argindarra elkarregaz esleitzea banan-banan egitea baino merkeagoa dela da erabakiaren arrazoiatariko bat

IZURTZA • J.DERTEANO

Joan zen barikuan udalbatzarra egin zuten Izurtzan. Bertan, EH Bilduk eta EAJk aho batez onartu zuten hurrengo elektrizitate kontratua Mañariagaz batera esleitzeko asmoa. Oraintsu, Mañarian

ere aho batez hartu dute erabakia. Argindarra elkarregaz esleitzea banan-banan esleitzea baino merkeagoa dela da erabakiaren arrazoiatariko bat. Horregaz batera, ekoizle txikiei lehiaketara aurkezte erraztu gura diete.



Joan zen asteko udalbatzarrean aho batez onartu zuten erabakia.

Gustoko

GASTRONOMIA ETA ELIKADURA AZOKA

2020 / 03 / 6 - 8

kalitatea eta jatorria

Kolaboratzaile nagusiak

EXPOSSIBLE!

www.gustoko.eu
www.bilbaoexhibitioncentre.com

Mallabiko Ariño eta Ariño Etxebarri baserriak argindar linea biren erdian harrapatuta geratuko dira

Goi-tentsioko argindar linea berriaren eta aurretik dagoen beste baten artean daude baserri biak. Bertako bizilagunek azaldu dutenez, Mallabian Gueñes-Itsaso lineako dorre bat falta da eraikitzeko, baserrien azpiko aldeko bat, hain zuzen

MALLABIA • J.D
Gueñes-Itsaso goi-tentsioko argindar lineak Mallabia zeharkatuko duen tartean, dorre bakarra falta da jasotzeko, Ariño eta Ariño Etxebarri baserrien ondoko sakongunean eraiki behar dena, hain zuzen ere. Lanak amaitzen direnean, linea biren erdian harrapatuta geratuko dira baserri biak, eraikitzen dabiltzan 400 kilowatt-eko berriaren eta lehenagotik dagoen potentzia txikiagoko beste baten artean. Baserri bietako bizilagunak egoe-

Baserri ondoko dorre biak lotzeko kablea 100 metro baino gutxiagora geratuko da, neurketen arabera



Olano eta Urien Ariño baserrian. Atzealdean goi-tentsioko dorre garaia. Dorre hori lotuko zaio baserrien azpialdean eraikitzeko falta denari.

ragaz kezkatu daude. Eraikitzeko falta den goi-tentsioko dorrea —oinarria prestatuta dago— eta Ariño baserriaren atzealdean eraikita dagoen beste bat kableekin lotzen dituztenean, kable horiek baserrietik 100 metro baino gutxiagora egongo dira, eta baserri horretako bizilagunak eta ondoan dagoen Ariño Etxebarri baserrikoak kezkatuta daude. "Buletin ofizialean irten zenean, proiektuan jartzen zuen ez zegoela etxebizitzarik argindar lineatik 100 metrora baino

gutxiagora, baina guk orduan esan genuen hori gezurra zela. Red Eléctrica de España langile bat etorri, eta bere neurketek 100 metrotik behera markatzen zuten. Ondoren, beste neurketa batek 85 bat metro markatzen zuen", dio Ariño baserriko Rikardo Urienek. Alegazioak ipini arren, inork ez diela erantzun salatu du. "Kableak lurperatzea proposatu genuen. Obra egiten bazen, gutxienez lur azpitik joan zitezela, baina ez dugu erantzunik jaso", azaldu du. Ariño Etxebarri base-

J.R.Olano: "Arduradunak ipiniko nituzke dorre ondoan bizitzen, ea zenbat irauten duten"

erriko Jose Ramon Olano ere kexatu da. "Proiektuaren arduradunak ipiniko nituzke dorrearen ondoan bizitzen", dio.

Orain pare bat hilabete udal ordezkariak bertaratu eta argindar

uhinek inguruan duten eragina neurtu zuten. Linea berria eraikitzen denean beste neurketa batzuk egingo dituzte. Helburua neurketa biak konparatzea da eta datu horiekin ingurugiro inpaktuko txostenean jasotzen diren kopuruekin alderatzea.

Baserritar bien esanetan, bizkor dabilza linea berriko lanak egiten. Euren baserrietatik gertu dagoen Arietsu zonaldean, "dorre handi bi 15 bat egunean" eraiki dituztela adierazi dute.

Garaiko ludoteka zerbitzua txokolate tailerragaz zabalduko dute bariku honetan

GARAI • EKAITZ HERRERA
Gozotik hasiko dute, usain eta zapore ezin gozoagoaz. Garaiko umeek txokolate tailer bategaz inauguratuko dute gaur hasitekoa den ludoteka zerbitzua. Berbaro elkarteak izango da tailerra eskaintzearen ardura, eta Garaiko 12 bat umeek parte hartuko dute bertan. Berbaroko kide Eneko Iraetak txokolate lantegiaren inguruko xehetasunak eman ditu: "Ekintza bi egingo ditugu. Alde batetik, edateko txokolatea pintura modura erabiliko dugu. Hau da, pintzelak txokolatetan bustita, margolan handi bat egingo dugu". Behin margolana amaituta, sukalde lanetan ere ipiniko dituzte umeak. Txokolatezko tarta bat egingo dutela aurreratu du Iraetak, "denen artean". Tailerra 16:00ak aldera hasiko da, eta 19:00ak aldera amaituko dute.

Datozen egitasmoak
Berbaro elkarteak hilean behin eskainiko du Garaiko ludoteka zerbitzua, eta ekainera arteko egitaraua izango du. Xehetasun guztiak zarratu barik dituzten arren, etorriko diren aisialdi ekintzen aurrerapen bat egin dute. Martxoan olinpiada tankerako jolasak egingo dituzte, eta ortuarien lanketa egingo dute apirilean.

Auto gidarientzat ipinitako ispiluak birkokatu egin dituzte Otxandion

Iturizarrerako sarreran zegoen ispilu bat kendu eta bestea tokiz aldatu dute

OTXANDIO • J.D
Otxandioko herrigunean, Iturizarrerako bidegurutzean kotxeentzat zeuden ispilu biek ez zuten euren eginbeharra behar zen moduan betetzen. Horregatik, Otxandioko Udalak aldatu egin ditu gune hartako ispiluak. Ispiluetariko bat bertan utzi dute, baina orain arte zegoen tokitik kendu eta leku egokiago batean ipini dute, autoetan doazenek ispilu horretatik hobeto ikusi dezaten. Inguru hartan zegoen beste ispilua Atzekolandetara eramanez dute. Azken aldaketa hori hango auzotarrek egindako iradokizun bati erantzunez hartutako erabakia izan dela azaldu dute udal arduradunek.



Tokiz aldatu duten ispilua.

Udalean oposaketei ekiteko eskatu du EH Bilduk

Hiru urteko epean 30 lanpostutarako oposaketa prozesuak hasteko proposamena egin du bilkuran

ABADIÑO • A.M.
Abadiñoko EH Bilduren esanetan, udaleko lanpostuen %54 behin-behinekoak dira; 35 lanpostu dira horiek. Udal gobernu taldeak hori kudeatzeko duen "blokeoa" ere salatu zuen Mikel Urrutia zinegotziak: "Legegintzaldi honetako zortzi hilabete igaro dira, eta ez da oposaketen edo lanposten gaian ezer aurkeztu. Azken gobernazioan lan-poltsak lehenesteko asmoa adierazi zuen udal gobernuak, hasierako asmoa alderantzizkoa zen arren". Horrez gainera, hainbat ataletan "gabeziak" daudela salatu zuten otsaileko bilkuran. "Berdintasun teknikariaren postua betetzea lehentasunezkoa izan behar da", esan zuen. Ingurumenean aditua

den teknikaria edukitzea ere beharrezkotzat jo zuen EH Bilduk. Zazpi puntuko proposamena egin zuten mozioan, tartean 2022an egutegia finkatzeko behin-betiko kotasuna %5-8an kokatzeko.

Garaizabal alkatearen berbetan, udal gobernuak plangintza propioa du eta horri eutsiko diote

Mikel Garaizabal alkateak, osterar, udalak egutegi eta plangintza propioak dituela azpimarratu zuen. "Gogor gabiltza lan egiten", adierazi zuen alkateak.



IURRETA *Tellitu-n*

3 logelatako 6 etxebizitza

2 logelatako 11 etxebizitza

Garajea eta trastelekua barne

ZARATE ELEXPE
E R A G I L E A K

Tel.: 946 816 673
www.zarateyelexpe.com

Lan hitzarmen berri baterako aurre akordioa sinatuta, Durangaldeko kiroldegietako langileek amaitutzat eman dituzte grebak

Patronalak eta langileek jarrerak hurbildu dituzte eta lan hitzarmen berri baterako aurre akordioa sinatu dute. ELA sindikatuaren esanetan, hiru izan dira aurre akordioa sinatzeko funtsezko eskariak: inaplikazio klausula ezartzea, gutxieneko soldatak finkatzea eta euskarari lotutako irizpide bat eraldatzea



CEBEK patronalaren eta kiroldegietako langileen arteko negoziazioak 2018ko urrian hasi ziren. Ordutik hona, hainbat greba eta mobilizazio egin dituzte.

DURANGALDEA • M.Z./E.H.

Hile luzetako grebaren, protesten eta tirabiren ondoren, badirudi argi izpiak etorri direla kiroldegietako hitzarmenaren auzira. Bizkaiko patronalak eta kiroldegietako langileek lan hitzarmena eguneratzeko aurre akordioa sinatu zuten

otsailaren 20an. Horrenbestez, azken orduko aldatetarik ezean, konponbidea ipiniko diote 2018ko urritik hona izandako tirabira eta negoziazioei.

ELA sindikatua da Bizkaiko kiroldegietako langileen artean ordezkariarik handiena duen

sindikatu (langileen %54 ordezkatzeko du). Lorea Fernandez ELA sindikatuaren zerbitzuen saileko arduraduna da Durangaldean, eta, bere esanetan, hiru izan dira aurre akordioa sinatzeko "berebizikoak" izan diren arrazoiak: inaplikazio klausula, oinarritzko soldata eta

euskalduntzeari lotutako gaiak moldatzea. "Inaplikazio klausula ezarri ezean, enpresek atea zabalik zuten hitzarmenean adostutakoa ez aplikatzeko. Hau da, ez zuten adostutakoa zertan bete. Eta, orain, sindikatuak eta patronalak hitzartutakoa enpresek beteko dutela

bermatzen da", dio Fernandezek. Klausula hori izan da, bere esanetan, negoziazioetarako "marra gorriariko bat".

Aurre akordioan idatzita gelditu den beste baldintza bat soldatena da. 2021etik aurrera, kiroldegietako langileek 1.200 euroko gutxieneko soldata izango dute. Kopuru horrek, baina, badu bere ñabardura. Fernandezek esanetan, "1.200 euro horietara heltzeko, kiroldegietako langileek hainbat pizgarri baliatu ahalko dituzte 2021ean zehar (gauez lan egiteagatik pizgarriak, antzinatasunari lotutakoak eta abar). Baina 2022an ezingo da hala korik egin. Urte horretan, 1.200 eurokoa izango da oinarritzko soldata, pizgarriak aparte utzita".

ELAren esanetan, langileen euskalduntzeari lotutako irizpidea ere beste baldintzetariko bat izan da aurre akordioa sinatzeko. Langileetarik batek bere euskara maila hobetzeko azterketa egin gura bala, patronala arduratuko litzateke azterketa horren gastuez. "Orain arte, patronalak baldintza bat ipintzen zuen euskara azterketak diruz laguntzeko: azterketa gainditzea. Hemendik aurrera, baina, nahikoa izango da azterketara aurkeztea patronalak gastuak estali ditzan", azaldu du Fernandezek.

A-8 Peajerik ez! plataformak txirrindularien bizikleta martxa bat antolatu du domekarako, bide segurtasuna aldarrikatzeko

A-8 autobideko bidesaria kentzea txirrindularientzat ere mesedegarria izango litzatekeela dio plataformak. Autoen trafikoa apalduta, bizikletan dabilzanen bide segurtasuna areagotuko litzatekeela dio. Martxa Durangon hasiko da, Zornotzaraino joango da, eta Durangora itzuliko da berriro



A-8 Peajerik ez! plataformak dioenez, 24 bat mila auto dabilta egunero N-634 errepidean.

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

A-8 Peajerik ez! plataformako ki-deek aldarrikapenetan pauso bat aurrera egiteko asmoa agertu dute. Joan zen hilean manifestazioa egin zuten eta joan zen astean bidea moztu zuten berriro. Orain, beste mugarri bat ipiniko dute domekan: bizikleta martxa aldarrikatzailea egingo dute.

Arrisku gutxiagoko errepide bat eskatuko dute, arreta txirrindulariengan ipinita oraingoan. Errepidera bizikletan irtetea "arrisku kirola" ez izatea gura dute. Horretarako, AP-8 autobideko bidesariak kentzea eskatuko dute, horrek N-634 errepideko trafikoa arintzea ekarriko lukeelako, eta, hartara, txirrindularien eta auto gidarien artean "errepide lagun-

koiago bat" sorraraziko litzatekeelako. "Gure plataformaren kezketariko bat txirrindularien bide segurtasuna ere bada", azaldu du Juan Carlos Poderoso A-8 Peajerik ez! plataformaren boze-


Arrisku gutxiagoko errepide bat eskatuko dute, arreta txirrindulariengan ipinita

ramaileak. Azaldu duenez, "24 bat mila auto" pasatzen dira egunero bertatik. "Txirrindulariak eurak ere kexatu izan zaizkigu. Ikusten dute N-634 errepidea ez dela segurua eurentzat. Jaiegunetan ez dago hainbeste trafikorik, eta baliteke erosoagoa izatea txirrin-

dularientzat. Baina lanegunetako beste kontu bat da. Trafiko handia dabil eta txirrindulariek arrisku handia bizi dute. Eta ez haiek bakarrik. Auto gidarientzat ere arriskutsua da egoera, hor ibiltzen baitira, bide bazterrean doazen txirrindularienganako distantziari kostata eusten", dio Poderosok.

Durango-Zornotza-Durango

Bizikleta martxa Durangoko Ezkurdi plazatik abiatuko da, domekan, 9:30ean. Durangoko kaleak zeharkatu eta gero, martxako ki-deek Zornotzarako bidea hartuko dute. Bizikleta martxak ordu bete inguru iraungo duela azaldu dute antolatzaileek. Bertara txaleko horiagaz joateko deia ere egin dute.



15. AUKERA AZOKA
DURANGO

LANDAKO GUNEA 2020
martxoak 6, 7, 8

Ostirala **Larunbata** **Igandea**

10:00-14:00 **10:00-14:00** **11:00-14:00**
17:00-21:00 **17:00-21:00** **17:00-19:00**

        Dendak Bai 688 738 102 www.dendakbai.eus



Hareek denporak!

ELORRIOKO GAZTETXEAK 32 URTE EGIN DITU

'Herri bat gaztetxe bat'. Lelo horregaz zabaldu zuten Gaztetxea Elorrion. 1988ko urtarrilean, hainbat gaztek Iturri eraikina okupatu zuten. Okupazio horregaz, herriko hainbat taldek hartu zuten lekua Iturrin. Handik gutxira, udalagaz obretarako akordio batera heldu arren, aurrerantzean autogestioan sakondu zuten.

Belaunaldi ugari igaro dira gaztetxetik, eta, arazoak arazo,

proiektuak aurrera egin du gaur egunera arte.

Joan zen asteburuan, otsailaren 22an, Elorrioko Gaztetxearen 32. urteurrena ospatu zuten. Sortzaile zein eragileek bat egin zuten egitasmoa bizirik dagoela ospatzeko, egun osorako antolatutako egitarauaren bueltan. Familia argazkia ere atera zuten. Bazkariaren ondoren, musika kontzertuekin amaitu zuten eguna. J.G.

Politikan

Neskutz
Rodríguez
Herriaren Eskubidea



KON-ZIENTZIA

Zaldibarko zabortegearen "tragediak" agerian utzi du Eusko Jaurlaritzako agintari politikoek egiten duten hondakinen inguruko kudeaketaren (des)kontrola eta airearen kutsadurarekiko kontzientzia falta.

Gaur egun, mundu mailan, enpresa kutsagarriek, erraus-tegiek, eta abarrek airera isurtzen dituzten substantzia toxikoen kalteak frogatzen dituzten azterketa zientifiko ugari daude. Baina, hala ere, askotan, gehienetan, erabakiak hartzen dutenek interes ekonomikoak ongizatearen eta osasunaren aurretik jartzen jarraitzen dute.

Amiantoarena adibide argia dugu. Amiantoak biriketako minbiziarekin zuen lotura zuzena frogatzen zuen lehen azterketa 1930ean izan zen, Ingalaterran. Baina epe laburrean kalterik ez zuela sortuko pentsamenduari eta eraikuntza-enpresetan izango lukeen kalte ekonomikoari erreparatu, ez zuten merkaturatik atera. Izan ere, 2011ra arte ez zen debekatu bere erabilera Estatuan.

Ikerketak zientzialariek egiten dituzten arren, erabakiak politikariek hartzen dituzte. Eta erabaki horietan pisu handiagoa omen dute kontu ekonomikoek osasunekoek baino. Eta Zaldibarko kasuan, egunero frogatzen dute.

Amiantoaren kasuan 80 urte itxaron behar izan dugu toxikotasunaz konziente izateko. Zenbat itxaron beharko dugu beste partikula batzuekin? Badaude ikerketak eta eskuragarri daude.

Dagoeneko, zientziak bere lana egin du... Orain, Konzientziak piztea egokitzen zaigu.

Durungaldea asteen

Zaintzaileei zuzendutako programak antolatu dituzte Durangon eta Zornotzan

Durungaldea | Durungaldeko Amankomunazgoak eta Zornotzako Udalak Zaindu programa eta zaintzaileei zuzendutako tailerra antolatu dituzte. Amankomunazgoak antolatzen duen programa martxoaren 3an hasiko da, eta hilaren 10ean, 17an eta 24an ere egingo dituzte saioak. Zornotzako Udalak antolatutakoa martxoaren 4an hasiko da eta martxoaren 25ean amaituko da.

Martxoaren 10era arte zabalik dago udalekuetan izena emateko epea

Abadiño | Dagoeneko martxan da udalak eskainitako Ludekarako, Herri udalekurako eta Gaztetxoak udalekurako izen-ematea. Martxoaren 10era arte egongo da apuntatzeko aukera, eta izen-emateetan umeen kopurua gaituz gero, plazak zozketa bidez esleitu direla jakinarazi du udalak ohar baten bitartez.

Atxondoko Udalaren irudi korporatibo berria bozketa bitartez erabakiko dute

Atxondo | Atxondoko Udalaren irudi korporatiboa berritzeko asmoz, lehiaketa bat martxan ipini dute. Udalak sei proposamen aurkeztu ditu eta herritarrek sare sozialen bitartez izango dute aukera irudia aukeratzeko. Udalak ohar baten bitartez jakinarazi duenez, 'atsegin dut' gehien dituen irudiak irabaziko du. Herritarrek martxoaren 8ra arte izango dute aukera botoa emateko.



Urpekaritzan lehenengo pausoak emateko ikastaroa eskainiko dute Durangon

Durango | Ikastaroa 'bataio' lez ezagutzen dena izango da; hau da, urpekaritzaren munduan barneratzen hasteko lehenengo oinarriak eskainiko dituzte. Martxoaren 8an eta 15ean eskainiko dute ikastaroa, Landako II kiroldegian, 10:30etik 12:00etara bitartean edo 12:00etatik 13:30era bitartean. Izena emateko, Landako II kiroldegiko harrerara jo beharko da. Durango Kirolak entitateak eta Kirolen elkarnean antolatutako ikastaroa da, eta 32 plaza egongo dira guztira. Izen-emateetan kopuru hori gaituz balitz, zozketa baten bitartez erabakiko litzateke nortzuk izango diren onuradunak.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarateak barne).

Durungaldean ostalaritzarekin,
zerikusia duen negozioirik baduzu,

JARRI EZAZU ZURE IRAGARKIA ANBOTON

Informazio gehiago **94 621 79 02** telefono zenbakian





**TRATU TXARREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEENTZAKO
ARRETA PSIKOLOGIKOA ETA ZERBITZU JURIDIKOA**

946 200 492



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango





Miren Sarrionandia, Rosa Mintegi, Isabel Iraurgi, Alaitz Berriozabalgoitia, Puri Sarrionandia eta Marisa Barrena.

Martxoak 8 Iurretara

Emakumeen nazioarteko eguna

Otsailak 19, asteazkena
18:00 MARGARET ATWOOD

TELESAILA
Liburuan oinarritutako telesailaren pare bat kapitulu ikusiko dira.
Ibarretxe Kultur Etxea

Otsailak 24tik martxoaren 9ra
Zapatisten 11 eskakizunak

ARGAZKI ERAKUSKETA
Ibarretxe Kultur Etxea

Otsailak 26, asteazkena
18:00 MARGARET ATWOOD

BERBALDIA
Hizlaria: Josune Muñoz (Skolastika)
Ibarretxe Kultur Etxea

Martxoak 4, asteazkena
18:30 "ENCUENTRO CON
ITXARO BORDA"

EMAKUMEAK ETA LITERATURA
- BERBALDIA
Dinamizatzailea: Josune Muñoz (Skolastika)
Hizkuntza: Euskara
Ibarretxe Kultur Etxea

Martxoak 7, zapatua
MUSIKAZ ALAITURIKO
DANTZA

BAZKARIA
(Autobusa jarriko da). Leku-kopuru mugatua
Izen ematea-txartelak salgai.
Otsailaren 17tik 28ra. +info: Ibarretxe
Kultur Etxea / Anderebide (Tel.: 616 49 05 06)
Hotel San Blas - jatetxea

Martxoak 8, domeka

EMAKUMEEN
NAZIOARTEKO
EGUNA

12:30 MILLA MOREA

HERRI LASTERKETA
Berdintasunaren alde, herrigunetik zehar
Kamiseta lila ekarri!

Dinamizatzailea: Irala García eta
GU BE BAI RUNNERS
Anderebide emakumeen elkarte gunea
Manifestazioa-martxa
Adierazpen instituzionalaren irakurketa
Parrilada: "Txistor dastaketa"
Askondo

Martxoak 13, barikua
19:00 "ESCUPIDO AMOR"

ANTZERKIA
Aitziber Izquierdo
Ibarretxe Kultur Etxea

Martxoak 15, domeka
12:30 EMAKUMEEN
TXIRRINDULARI TALDEAK
AURKEZPENA
Askondo

"Wikipedia erreminta ona dela uste dugu emakumeek erreferentzialtasuna lortzeko"

Hainbat kidek Durangaldeko emakume ezagunen profilak
sortzen dihardute azken urte eta erdian

DURANGO • IGOR GALARZA

Durangoko Andragunean batzen dira Durangaldeko emakumeen profilak sortzeko edo hobetzeko. Bederatzi bat lagun elkartzen dira, adin desberdinetakoak, emakumeen presentzia alor bibliografikoan ere egon dadin.

Zelan sortu zenuten taldea?

Andereak elkarteko emakume batzuek sortu genuen, 2018ko udazkenean. Hasieran ikastaro bat egin genuen, eta ondoren orientatzen hasi ginen, eta zerrenda bat osatzen. Prozesuari amaiera emateko, profilak editatzen hasi ginen, bai euskaraz, bai erdaraz.

Zein izan zen arrazoia?

Beti izan dugu kezka gure etxeetan, ikastetxeetan zein eremu askotan, adin desberdinetako jendearen erreferentzia nagusirik gehienak gizonezkoak zirelako. Edozein arloko zerrendetan begiraturaz gero, gehienak gizonezkoak direla ikusi dezakegu, eta emakumeak alderatuta daudela. Marisa Barrenak txio bat irakurri zuen Twitterren. Han ikusi zuen talde bat sortzeko asmoa zegoela hori dena egiteko. Hori buruan, geuk ere geure taldea sortu genezakeela pentsatu genuen.

Emakume ahaztuen inguruan berba egitea da betebeharra?

Emakumeak bistaratzeko ardura ere bagenuen. Emakume asko daude aitzindariak izan direnak arlo askotan, eta ezezagunak direnak. Ezezagunak dira ez ditugulako bistaratu.

Wikipediaren ideia heldu zitzaizuen.

Wikipedia erreminta egokia dela iruditzen zaigu emakumeek erreferentzialtasuna lortu dezaten, edo behintzat bistaratu ditzagun. Gaur egun, 7.000 emakume daude euskaraz erregistratuta Wikipedian. Guk 75 profil sortu ditugu, eta beste hamar erdaretatik itzuli ditugu. Badaude beste profil batzuk hobetzen ahalegindu izan garenak.

Zuetariko batzuek apenas duzue espe-

“

Gaur egun,
7.000 emakume
daude euskaraz
erregistratuta”

rientziarik. Zergatik Wikipedia?

Batzuk orain dela gutxi batu gara taldera. Oso interesgarria iruditzen zaigu Wikipediaren kontuarena, baina prozesua bera ere interesgarria da. Informazioa bilatu behar duzu, eta, batzuetan, profila osatzen ari zaren pertsonagaz hartu-emanetan jarri behar duzu. Askok ikasten da mundu horretan. Ha-



nen, eta lehen aipatutako ikastaroa horren harira zetorren, talde finko bat osatzeko nahiagatik eta gehiago produzitu nahiagatik. Lagun bigaz 60 profil eginez gero, hamarregaz... Hala ere, ez da bakarrik biografiak sortzea. Freskatu behar diren profilak ere badaude, emakume horien ibilbide profesionalean zerbait gertatu delako. Zorionez, bizirik daudenek lan handia egiten dute, eta hori guretzat ere lana da.

Nondik ekin zenioten lanari?

Durangoko emakume esanguratsuak zirenekin ekin genion. Apurka, eskualdera zabaltzen hasi ginen, beste herriekin loturak existitzen zirelako. Ondoren, ia gura barik zabaltzen hasita geunden. Erraketista mallabitar bat dela-eta, eskualdekoak ez ziren pertsonen profilak ere osatu ditugu. Hori bai, lehenasuna Durangaldekoek dute.

Baduzue landu gurako zenuten emakume gehiagoren profilik?

Durangaldeko emakume ugari me-rezi dute profila edukitzea, baina ez ditugu erregistratu, datu faltagatik eta abar. Kontua da erreferentzia kopuru bat behar dela erregistratu ahal izateko. Gaur egungo emakumeekin errazagoa da, informazio gehiago dugulako gaur egunean. Baina badaude sareetan inongo informaziorik ez duten emakumeak. Horrek galarazten du euren profila sortu ahal izatea. Bete behar ditugun profil horiek zirriborroan daude.

Gehienak kirolera eta kulturara lotuta dauden profilak dira, zientziara edo beste edozein arlotakoak baino gehiago.

Zorroztasunez idaztera ohitu zarete?

Wikipedian edonori buruz idatzi dezakezu, baina ez edozer. Euskaraz malgutasuna dago, eta, adibidez,

“

Testuak idazkera jasoa eduki behar du, eta guztiz objektiboa izan behar du”

—

gaztelaniaz baino erreferentzia gutxiago eskatzen dizute profila onartzeko. Horrez gainera, testuak idazkera jasoa eduki behar du, eta guztiz objektiboa izan behar du. Ezin da iritzi kutsuko testurik idatzi. Komunitateagaz harremandu zarete? Orain arte ez dugu izan hartu-eman zuzenik wikilari askogaz. Wiki Emakumeak dinamikako jendegaz bai, izan dugu hartu-eman. Hori bai, gu ere euskarazko Wikipediaren parte gara.

Halako sareetan edonork edozer idatzi dezake.

Profiletan aldaketarik izan bada, jakinarazpenak heltzen zaizkigu. Behin, profiletako bat osatu genuenean, pertsona anonimo batek testua aldatu zuen. Horren berri izan genuen eta berriro zuzendu genuen, baina bigarren adaketa desegoki bat egon zen. Zorionez, lokalizatu zuten adaketa desegokiak egiten zebilena.

Zein izan da ilusiorik gehien egin dizuen profila?

Ez da erraza esatea zein izan den profilik esanguratsuen. Gehien oroitzen ditugunak lehenengoak dira: Benita Uribarrena borrokalari antifaxistarena eta Aurora Abasolo sopranoarena. Bizenta Mogeli buruz ere hainbat gauza gehitu genuen.

Etorkizunera begira, zein da jarraitu beharreko bidea?

Hemendik aurrera, emakume eta gizonen arteko arrakala murriztea izango da helburua. Kopuruak herri-herri hartuz gero, argi dago gizon gehiago daudela erregistratuta, emakumeak baino.

“

Zenbat eta eduki gehiago sortu, orduan eta idazkera teknika hobea duzu”

—

Igartzen duzue idazkera garatzen zoaztela?

Zenbat eta eduki gehiago sortu, orduan eta teknika hobea duzu idazkerari dagokionez. Euskarazko Wikipediak bibliotekari bat du lanean, eta berak zuzentzen ditu testuak. Berak egindako zuzenketei erreparatuta ikasten dugu.

Zein esparrutako emakumeak dira aurkitu dituzuen gehienak?

sieran uste genuen Wikipedia bera oso itxia zela, espazio estu batekoa, baina ohartu gara alderantziz dela, oso zabala. Egia esan, mundu hori ez dugu askorik ezagutzen, baina iruditzen zaigu oso garrantzitsua dela emakumeak hor ere presente egotea. **Desabantaila da teknologiaz ideia gutxi izatea?**

Gutariko batzuek ez dugu izan sare sozialik orain dela gutxira arte; nahikoa izan dugu Whatsapp-agaz. Oso berria egin zaigu, eta interesgarria ere bai. Ikastaro bat egin genuen, zenbait pautak jarraitu hasieran... Horregaz bazoaz apurka kontrolatzen. Ez da askorik jakin behar, baina beharrezkoa da gutxienekoa jakitea.

Zenbat zaudete lantalde horretan?

Bederatzi bat lagun gaude gaur egun. Hasieran pare bat baino ez gi-

Milia Morea egingo dute lurretan berdintasuna aldarrikatzeko

Herrigunean zehar egingo dute lasterketa, Askondo kalean hasita. Arropa morez jantzita joatera deitu dute

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, iurretarek Milia Morea egingo dute berdintasunaren alde. Lasterketa Askondo kaletik irtengo da, 12:30ean, eta antolatzaileek arropa morez jantzita joatera deitu dute. Guztira, 1.600 metro egingo dituzte korri-

ka. Lasterketa hasi aurretik, ibilbidean zehar manifestazio-martxa ere egingo dute Anderebide elkarrekin deituta, berdintasunaren aldeko aldarria ozenago entzun dadin. Lasterketa amaituta, adierazpen instituzionala irakurriko dute, eta txistor dastaketa egongo da.

Bego Ortizek Chavela Vargasen abestiak ekarriko ditu gogora Berrizen

Emakumeen Nazioarteko Egunerako, martxa antolatu dute, udaletxearen aurrean hasi eta Urtiaga plazaraino

BERRIZ • AITZIBER BASAURI

Emakumeen Nazioarteko Egunean harira, Bego Ortizek *La Llorona* emanaldia eskainiko du, martxoaren 7an, Berrizko Kultur Etxean. Abeslari madrildarrak Chavela Vargasen rantxera eta boleroen enblematikoenak eskainiko ditu. Kontzertua 22:00etan hasiko da.

Bestalde, martxoaren 14an, Histrión Teatro taldeak *La Isla* antzez-lana eskainiko du.

Martxoaren 8a aldarrikapenerako eguna izango dute Berrizen. Martxa antolatu dute, udaletxetik hasita Urtiaga plazaraino. 12:30ean batuko dira udaletxearen aurrean.

'Biolentzia eta ahalduntzeak sare sozialetan' berba Zaldibarren

Ianire Estebanez psikologo eta terapeuta feministak tailerra eskainiko du datorren martxoaren 21ean

ZALDIBAR • AITZIBER BASAURI

Ianire Estebanez psikologo eta terapeuta feministak Emakumeen ahalduntzerako tailerra gidatuko du, Zaldibarren, martxoaren 21ean. *Biolentzia eta ahalduntzeak sare sozialetan* izenburupean eskainiko du tailerra, 10:30etik 12:30era, liburutegi zaharrean.

Izena emateko epea zabalik dago martxoaren 17ra bitartean.

Emakumeen Nazioarteko Egunean harira antolatuta, afaria eta dantzaldia ere izango dira Olazar frontoian, martxoaren 7an, 21:30ean hasita. Era berean, martxoaren 8an, elkarretaratzera deitu dute.

MARTXOAK 8

BERRIZ
EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

MARTXOAK 4-29 ENTRE FRIDAS Y CHAVELAS ERAKUSKETA / MIRIAM RODRÍGUEZ MORÁN / KULTUR ETXEA

MARTXOAK 6 BEGO ORTIZ. LA LLORONA / KONTZERTUA / 22:00 KULTUR ETXEA

MARTXOAK 8 ZUMBA BERRIOIZ Guraso Elkartearen eskutik / 11:15 UDALETXEA

MARTXA UDALETXETIK OLAKUETA PLAZARA / 12:00 UDALETXEA

MARTXOAK 14 LA ISLA / ANTZERKIA / 20:00 KULTUR ETXEA

EMAKUMEAK KULTURGINTZAN. EGITARAUA BEGIRATU (MARTXOA)



“Biocruces Bizkaian garatzen ari garen plataforma pazienteekin entsegu klinikoak egiteko espazio bat da”

Robotika eta errealitate birtuala errehabilitazioaren zerbitzura ipini dute Biocruces Bizkaian. Guenetxea fisioterapeutak proiektu horretan dihardu

umeez ibiltzeko duten ezgaitasuna... baina traumatologian eta onkologian hainbat entsegu kliniko garatzen ari dira.

Plataforma honek zein eragin du pazienteen errehabilitazioan?

Plataforma honek oinarritzko ikerketa gure eguneroko lan klinikora hurbiltzen du. Honela, emaitzen arabera, lan protokolo berriak garatu ditzakegu tratamenduen kalitatea eta eraginkortasuna hobetuz.

“**Robotikak errehabilitazioko tratamenduari intentsitatea ematen laguntzen digu**”

Zertan datza Biocruces Bizkaian garatzen ari zareten plataforma?

Biocruces Bizkaian garatzen ari garen plataforma pazienteekin entsegu klinikoak egiteko espazio bat da. Zein gaixotasun duten pazienteei zuzenduta dago? Nire arloa neuroerrehabilitazioa da eta gaixotasun neurologikoak dituzten gaixoei zuzenduta dago. Adibidez, muineko lesioa, iktusa,

garapen prozesuan daude.

Joan zen astean eman zenuten prentsaurrekoan, exoeskeletoa aurkeztu zenuten. Zelakoa da?

Exoeskeleto bi ditugu. Bata Lokomat deitzen da. Pertsonen pisuaren sostengua ahalbidetuz, pazienteak duen aktibazio mailara egokitzen da. Era berean, zinta batean mugitzen da. Osagarri legez, ordenagailu batean intentsitate ezberdinetako ariketak egiten ditu jokoan bitartez. Bestea Hank deitzen da. Pazienteak enberraren kontrola izan behar du, eta, hortik aurrera, zintatik kanpoko espazioan mugitu daiteke.

Robotikak zelan lagundu dezake tratamenduak eraginkorragoak izateko?

Robotikak errehabilitazioko tratamenduari intentsitatea ematen laguntzen digu. Ikerketek diotenez, tratamendu intentso eta goiztiarren emaitza hobeak eta azkarragoak lortu daitezke.

Zer sentsazio dute plataforma horretan tratamendua jaso duten pazienteek?

Pazienteak motibatuta daude ikerketan parte hartzeko, exoeske-

letoekin oso fase goiztiar batean oinez ibiltzeko gaitasuna lantzen dutelako. Psikologikoki ere eragin positiboa du.

Errealitate birtuala eta robotika lotzen dituen proiektu bat duzue.

Badugu goiko gorputz adarrerako eginda dagoen robota ere, Exotec deitzen dena. Errealitate birtualeko betaurrekoak erabiliz, robotean joko funtzionalak diseinatu dituzte, eta besora egokitzen den exoeskele-

“**Pazienteak motibatuta daude, exoeskeletoekin fase goiztiar batean ibiltzeko gaitasuna lantzen dutelako**”

toak iktusaren ondorioz mugitzeko zailtasunak dituen besoa mugitzen laguntzen du. Proiektu hau prototipo bat da eta ohiko tratamendua gaz alderatuz hobekuntza nabaria goa izan daitekeela erakustea da helburua.

ABADIÑO • J.G.

Maidar Guenetxea Arrinda abadiñarra fisioterapeuta da Gurutzetako ospitalean. EHUKO irakaslea ere bada. Gainera, Biocruces Bizkaian robotikagaz eta errealitate birtualagaz lotutako ikerkuntzan dihardu. Joan zen astean, ikerketara eta errehabilitaziora zuzenduta dagoen plataforma aurkeztu zuten hedabideen aurrean.

Zertan datza Biocruces Bizkaian garatzen ari zareten plataforma?

Biocruces Bizkaian garatzen ari garen plataforma pazienteekin entsegu klinikoak egiteko espazio bat da. Zein gaixotasun duten pazienteei zuzenduta dago?

Nire arloa neuroerrehabilitazioa da eta gaixotasun neurologikoak dituzten gaixoei zuzenduta dago. Adibidez, muineko lesioa, iktusa,

MARTXOAK 8 Emakumeen nazioarteko eguna

MARTXOAN, HILABETE OSOAN: ERAKUSKETA
“Gerorako oroitzapenak. Ahalduentzeko praktika artistikoak”
Lekua: Errata Kultur Etxea

MARTXOAK 5
INAUGURAZIOA ETAKALE JIRAFEMINISTA “Hiru ekintza, hiru kontakizun, hiru emakume”
Lekua: Errata Kultur Etxea eta Traña-Matiena Ordua: 18:00

Martxoak 6
UDABERRIKO TAILER PRAKTIKOA “Emakumeen aliatuak”
Lekua: Mendiola Errekatxo auzo-erleku Ordua: 16:30 - 20:00
Hizlaria: Clara Gutiérrez Arana Emakumeentzako tailerra izango da eta 25

lagun hartu ahal izango dira gehienez. Izena eman behar da parte hartzeko, eta lehentasuna emango zaie herriko emakumei. Txokotik iritenda txango bat egingo da landareak ezagutzen ikasteko. Ondoren, azalduko dira euren propietateak, erabilerak eta nola erabili sukaldean.

Martxoak 7
Afrikar perkusio ikastaroko ikasleen emanaldia kalean.
Lekua: Traña-Matiena
Ordua: 13:00

Martxoak 8
EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA Kontzentrazioa eta adierazpen instituzionalaren irakurketa.
Lekua: Trañabarren kalea
Ordua: 13:00

Martxoak 12
Zinegoak jaialdiko film laburrak Lekua: Errata Kultur Etxea
Ordua: 18:30

Martxoak 13
“FOTOS, HORMONAS Y LEXATÍN” antzezlan.
Diferentziak ikusizun feminista, aldarrikatzaile eta dibertigarri bat dakargi. Maite Redin Merbieren lanuan sartuko da: antsietatea diagnostikatua, histerikotzat joa eta gehiegizko pisutik obesitate bidean doana. Horrela egingo dio aurre Merbex bere bizitzako etapa berriari. Istoria komiko bezain erreala, egungoa bezain barregarria, samurra bezain zintzoa.
Lekua: Errata Kultur Etxea
Ordua: 19:00

Martxoak 27
ERAKUSKETA-Bisita Gidatua
“Gerorako oroitzapenak. Ahalduentzeko praktika artistikoak”
Lekua: Errata Kultur Etxea Ordua: 18:00

Apirilak 3
Zine Foruma. “ARGI” filmaren proiektzioa eta solasaldia Iratxe Mediavilla zuzendariarekin.
“Argi” 60ko eta 80ko hamarkadetako euskal herri batean kokatutako drama da. Argi izeneko neska baten begien bidez ikusiko dugu garai hartako egoera soziala. Preso sentitzen da eta borroka egin beharko du bere buruarendako leku bat egiteko egokitu zaion gizartearen.
Lekua: Errata Kultur Etxea
Ordua: 18:00



Abadiño
Ezateko Udala

Berrikuntza eta Aniztasuna
Igualdad y Diversidad

ABADIÑO • JOSEBA DERTEANO
Miriam Cantero (Abadiño, 1989)
Poloniar joan zen laz, robotika kontuan espezializatuta dagoen enpresa batera praktikak egitera. Han, egoera bitxia bizi izan zuen, genero ikuspuntutik.

Robotika ez zen zure lehenengo aukera izan.
Berandu hasi nintzen ikasketa mota hauekin. Hemeretzi urte nituela Madrilera joan nintzen, fisioterapia ikastera. Han ikusi nuen ez zela niri gustatzen zitzadan arloa.
Noiz piztu zitzazun robotikaren grina?
Madrildik bueltan, hemengo enpresa batean sartu nintzen lanean, makinekin. Hor sartu zitzaidan gogoak jakiteko zelan funtzionatzen duten makinek eta horiek zelan konpontzen diren.

“
Robotikan erronka batzuk bilatu eta horien erantzunak aurkitu behar dituzu, fisioterapiaz lez”
■

Badute ezertan antzik fisioterapiak eta robotikak?

Beldur nintzen, fisioterapiaren mundutik robotikakora alde handia dago eta. Baina, egia esan, robotikan erronka batzuk bilatu eta horien erantzunak aurkitu behar dituzu, fisioterapiaz lez. Baina ez dute beste parekotasunik.
Zerk lotzen zaitu robotikaren mundura?
Nire gaitasunetarikoa bat jakinmina dela esango nuke. Zer ikasi gura nuen bilatzen hasi nintzen, niretzat bizitza ikastea da eta. Eta robotikaren mundua aurkitu nuen.
Eta ikasketak zirela-eta, Crackovia-ra (Polonia) joan zinen. Zein eginkizun zeneukan hango enpresan?
Enpresak autoen sistema elektronikoa egiten ditu. Gidatze autonomoa ahalbidetzeko behar diren kamerak eta softwareen garapena lantzen du, hain zuzen ere. Ni mantentze-teknikaria nintzen. Enpre-



saren 30 urteetan, kargu horretan izan den lehenengo emakumea izan nintzen. Enpresako emakumerik gehienak idazkariak ziren. Laborategian bazeuden beste emakume biek ere, baina azaleko kontuak egiten zituzten. Neu izan nahiz lehenengo makinak ukitzen eta horiekin zuzenean lan egiten.

“
Nire ikuskariak esan zien: "Nire emakumeak zuen gizon biek adina egiten du"”
■

Zelan erreakzionatu zenuen hori jakitean?
Umorez hartu nuen. Polonian ibi-

li nintzen enpresan arraroa zen emakume bat gizonen lana egiten ikustea. Behin mahai bat mugitu gura nuen, eta hainbat gizonen mugitzea esan zidaten. Haien iritzian, emakumeek ez dute karga fisikorik hartu behar.
Hortik aurrera, egon zen berdintasunerako joerarik?
Denboragaz gauzak normaltasunera heldu ziren. Nire ikuskariari esan zioten gizon biek behar zituztela, behar batzuk zirela-eta. Nire ikuskariak esan zien: “Nire emakumeak zuen gizon biek adina egiten du” (barrez).
Egin zenuen garrantzi handiko lanik han?
Euskal Herrira itzuli aurretik, enpresa proiektu garrantzitsu batean murgilduta zegoen, eta tokatzen ez zitzaidan funtzioa egin nuen: proiekturako robot egokiak erosi

zituzten ala ez aztertzea. Horren harira, goi-karguko ingeniari bat ere etorri zen nigaz berba egitera.
Mantentze-lanak baino gauza gehiago egiten zenituen, beraz.
Deneriko lanak egin nituen. Soldadura kontuetan gutxi banekien, adibidez, norbaiti ikasteko eskatu eta arratsalde osoa ematen nuen beragaz soldadura lanak egiten. Nigaz zegoenak zorrotz aztertzen zuen nire lana. Enpresa egokia zen niretzat, oso ona lan egiteko, eta are hobe ikasteko. Talde lanean aritzen ziren; hemen ez gaude ohi-tuta hori ikustera.
Denerako denbora ematen al zizun?
Hilabeteko lana astebetean amaitzen nuen sarri, behin zerbaitegaz hasiz gero ezin dut amaitu barik utzi eta. Beraz, sobran nuen denbora beste departamentuetan aritzeko aprobeztatzen nuen. Orduan,

enpresatik ibiltzen nintzen, soinu proba batzuk edo autoak nola fabrikatzen zituzten ikusten.

“
Bitartekari lanak egiten ditut Poloniako enpresaren eta orain lanean nabilen enpresaren artean”
■

Baduzu aukerarik etorkizunean enpresara bueltatzeko?
Nire ikuskari ofiziala zenak esan zidan nagusiak bazuela ni kontratatzeke nahia. Gaur egun, badut hartu-eman enpresagaz, eta bitartekari lanak egiten ditut haien eta orain lanean nabilen enpresaren artean.

M 8 - EMAKUME LANGILEEN NAZIOARTEKO EGUNA

OTSAILAK 27
OTSAILAK 29
MARTXOAK 7
MARTXOAK 7-8
MARTXOAK 8
MARTXOAK 14
MARTXOAK 18
APIRILAK 4

DOKUMENTALA / "NAGORE LAFFAGE" 18:00 - 19:30 Liburutegi zaharrean

FRONTENIS TXAPELKETA 9:00 Olazar frontoian

AFARIA ETA DANTZALDIA 21:30ETAN OLAZAR FRONTOIAN Tikitak 15€ Olga, Sorgin, Karobi, Castet eta Rakelen dendan

HELMUGA ELKARTEAK EGINDAKO LANEN ERAKUSKETA Liburutegi zaharrean. Zapatua 11:00-14:00 eta 17:00-19:00. Domeka 11:00-14:00

EMAKUME LANGILEEN NAZIOARTEKO EGUNA Kontzentrazioa

EMAKUMEEN II. BIRA

EMAKUMEEN IRTEERA HELMUGA ELKARTEAK ANTOLATUA Zugarramurdiko leizeetara

EMAKUMEEN AHALDUNTZE TAILERRA Violencias y empoderamiento en las redes sociales - lanire Estebanez 10:30 - 12:30 Liburutegi zaharrean

OTSAILAREN 27AN ETA APIRILAREN 4AN HAURTZAINDEGI ZERBITZUA EGONGO DA ALDEZ AURRETIK ESKATUZ GERO
berdintasuna@zaldibar.eus, udaletxean edo liburutegian

Maria Jesus Cueto 40 urteko bere ibilbide artistikoaz arituko da Durangoko Arte eta Historia Museoan

Cueto artista eta EHuko irakaslearen hitzaldia martxoaren 6an izango da, 19:00etan, Etxezarreta Jauregian



DURANGO • A.M.

Durangoko Arte eta Historia Museoak emakume baten erakusketagaz eman gura izan dio hasiera ekitaldi berriari. Hain zuzen ere, María Jesús Cuetoren *Aztarnak denboran zehar* erakusketa ikusgai egongo da martxoaren 8ra arte. Durangoko Udalak ere, lan esperientzia emakume baten ikuspuntutik entzuna izateko berbaldia antolatu du martxoaren 6rako. Cueto artista eta irakasleak lau hamarkadako ibilbidea darama artegintzan. Eskulturaren esparrua jorratzen du, batez ere. Hala ere, bestelako diziplinekin ere ausartu da bere ibilbide osoan zehar.

Erakusketan, besteak beste, *Burdinaren arima* delako artelanaren irudiak daude ikusgai. Gaur egun, Azterlanek Aliendalden duen gunean dago pieza hori. 2004ko martxoaren 11ko Madrilgo erasoetako biktimak gogoratzeko, performance bat ere egongo da ikusgai Durangoko museoan, erakusketa honek irauten duen bitartean.

Diziplinartekotasuna

1979tik 2019ra bitartean eginiko lanak biltzen ditu erakusketak, eta horrek "berezi" egiten du Cuetoren ustez: "Ikerketa eta sorkuntza oso lotuta egon dira nire kasuan, eta, horri eskerrak, hainbat diziplina garatu ahal izan ditut. Erakusketa honetan bildutakoak ez dira egin ditudan proiektu guztiak, baina dauden denak oso esanguratsuak dira niretzako". Proiektuetan eskultura eta arkitektura batzen dira gehienbat, eta paisaiekin ere lan egiten dute askotan.

Otsailaren 29an eta martxoaren 3an bisita gidatuak egongo dira, Cueto artistagaz

Bisita gidatuak

Artistaren obra hurbilagotik ezagutu ahal izateko, bisita gidatuak eskaini ohi dira museoan. Bi geratzen dira oraindino. Lehenengoa zapatu honetan da. Martxoaren 3an, beste aukera bat egongo da *Aztarnak denboran zehar* erakusketaz gozatzeko, 18:30ean.

DURANGO
Garena eginez Vivir y convivir

MARTXOAK 6

HITZALDIA
"Signos en el tiempo"
María Jesús Cueto
19:00 gazteleraz /
Durangoko Arte eta Historia Museoan

MARTXOAK 7

DOKUMENTAL PROIEKZIOA:
"Comandante Arian" Alba Sotorra
Suargi Elkarte
19:00 San Agustín Kultur Gunean

MARTXOAK 8

XV. LILAKROSA
11:30 Kamisetak saltzea
Jinwar Emakumeen-Herrixkaren alde
Siriako Kurdistan. Suargi Elkarte.

12:00 XV. Berdintasunaren
aldeko ibilbidea

Ezkurdi
Amaitutakoan, Batukandra
Santa Anan

MARTXOAK 13

HITZALDI-BARRIKETALDIA:
"Nik sinesten dizut" Samara Velte
18:00 euskaraz / Andragunean
Andraguneko Euskarazko
Irakurketa Taldea.
Kordinatzailea: Marisa Barrena

20:00 ZINEGOAK

Bilboko Gaylesbotrans Nazioarteko
Zinema eta Arte Eszenikoen
Jaialdiaren Hedapena

MARTXOAK 15

WORD KAFEA
"NICARAGUA: Mujeres
en resistencia"
11:30 Plateruena Kafe Antzokian
Andreak - EH Feministak Nika

MARTXOAK 28

KONTZERTUA
ABESTI FEMINISTEN III.
LEHIAKETAREN KONTZERTU-FINALA
19:00 Plateruena Kafe Antzokian
Lehiaketan aukeratutako finalistek
hartuko dute parte





**Andrea Momoitio
San Martin**
Kazetaria.
Ortuella | 1989

“Liburu honetan, zoroen, lodien, lesbianen eta etorkinen ikusmoldeak begiratu dugu”

Martxoaren 3an, Pikara Magazineko Andrea Momoitio kazetariak *Feminismo. Miradas desde la diversidad* lana aurkeztuko du Elorrioko Iturri Kultur Etxean

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Orain 10 urte Pikara Magazine jaio zen, gai sozialak, politikoak eta kulturalak ikuspegi feminista eta inklusibo batetik lantzeko asmoz. 2019 amaieran, talde horretako hainbat egilek beste pausobat eman eta *Feminismo. Miradas desde la diversidad* lana kaleratu zuten. Martxoaren 3an Andrea Momoitio kazetaria lan hori aurkeztzen izango da Elorrioko Iturri Kultur Etxean.

Pikara Magazinekoek zuen lehenengo liburua kaleratu berri duzue, *Feminismo. Miradas desde la diversidad*. Zertan datza liburua?

Guk dugun ikusmolde feminista honetatik, apustu bat egin gura izan dugu, eta jendearek gure mugimendu feministaren berri eman gura izan diogu. Era guztietako zapalkuntzetan ipintzen dugu begirada. Gure ustez, emakumezkoak ez gara talde bat, emakumeak populazioaren erdiak gara, eta guk, populazioaren erdia osatzen dugunok, hainbat errepresio bizi behar izaten dugu. Beraz, lan honetan, zoroen, lodien, lesbianen eta etor-

kinen ikusmoldeak begiratu dugu, besteak beste.

Zein publikori dago zuzenduta?

Liburu hau jende askorentzat izan daiteke baliagarria, bai feminismoagaz lotura duen jendearentzat,

“**Emakumeok, populazioaren erdia osatzen dugunok, hainbat errepresio bizi behar izaten dugu**”

—
“**Lesbofeminismoaren helburua lesbianak mugimendu feministen barruan ere ikustaraztea da**”

baita alor honetan hasten dabilenarentzat ere. Nire ustez, feminismoagaz lotura dugunoi asko lagundu diezaguke, baita honegaz hasten

dabiltzanei ere. Gainera, mundu guztia erantzat ulergarria eta erabilgarria izan dadin, lengoia eta tonua ulergarriak izaten ahalegintzen gara.

Zelan bururatu zitzaizuen proiektu honetan sartzeara?

Oberon argitaletxeak proposamena egin zigun, eta taldean onartzea erabaki genuen. Pikara Magazinek 10 urte bete ditu, eta dagoeneko horrelako proiektu batean sartzeko legitimitate nahikoa dugula pentsatu genuen. Guretzat *Feminismo. Miradas desde la diversidad* oso aukera ona izan da.

Liburuko zure zatian, lesbofeminismoaren inguruan berba egiten duzu. Zertan datza lesbofeminismoa?

Mugimendu feministagaz lotura zuzena duen korronea da, LGTB mugimendutik ere asko edan duena. 70eko hamarkadan lesbofobiak indar handia zuen, eta oraindino ere lanean jarraitzen du: diskurtso feministak sortzerako orduan, lesbianismoa erdigunean ipintzen ahalegintzen da. Lesbofeminismoaren helburuetariko bat lesbianak mugimendu feministaren barruan ere ikustaraztea da.

Pribilegioa

Gaztea, Gizona maskulina, Zuria, Desgaitasunik gabe, Erdiko eta goi-klasea, Heterosexuala, Hizkuntza menderatzailea, Langileria, txiroa, LGTBI, Ez erakargarria, Emakumea*, Dibertsitate funtzionala, Zaharra, Beltza

M8

EMAKUME*EN NAZIOARTEKO EGUNA

EMAKUME*ON KONTRAKO DISKRIMINAZIO UGARIEI AURRE EGITEN

Emakume*entzat
17:30 MANIFESTAZIOA
Herriko plaza

Adi egun honetako ekintza guztiei!
10:00etatik aurrera gerturatu herriko plazara.

Elorrioko udala

2020KO INAUTERIE TAKO ARGAZKI LEHIAKETA

**Eman zure botoa
otsailaren 29tik
martxoaren 6ra arte**

**Webgunean botorik gehien jasotzen
duen argazkiaren egileak
lagun birentzako asteburu-pasa
bat irabaziko du**





‘Zaldi urdina’ ANTZERKIA **ZORNOTZA :: Otsailak 29**
Euskaraz eta euskaldunon auziei buruzko obra

Artedramak, Axutek eta Dejabuk elkarlanean egindako laugarren obra taularatuko dute, zapatuan, Zornotza Aretoan: *Zaldi urdina*. Ikuskizuna 20:15ean hasiko da.

Tekno jaialdi batean, Aingeru gazteak zaldi urdina deritzon droga saldu dio gazte bati, eta hau koman sartu da droga kontsumitu eta gero. Polizia Aingeruren

bila hasiko da, eta baita bere familia ere. *Zaldi Urdina* ez da droga-ri buruzko antzezlan. Euskaraz eta euskaldunon auziei buruzko obra da.

Marierrauskin
Glu Glu Produktzioak/ 3 urtetik aurrera
Martxoak 15, 12:00 - 18:00etan

Myres
Grop Circo
Martxoak 7, 19:00etan

El patio de mi casa
Pez Limbo Teatro
Otsailak 29, 19:00etan

San Agustín KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDAIA

Sanagustinalde, 12 · Tel.: 946 030 021 · sanagustin@durango.eus

Otsailaren 28an

ABADIÑO izena ematea
Katalamixon elkarteak **Durango Express** antolatutako du martxoaren 7rako (2006tik 2009ra bitartean jaiotakoei zuzenduta), Astola ermitan, 16:30ean. Izena emateko azken eguna otsailaren 28a da, Errota kultur etxean edo Mediatekan.

BERRIZ antzerkia ‘Kaskarot’ (Atx! Teatro), 18:15ean, Berrizko Kultur Etxean.

DURANGO musika DJ Miniann, 22:00etan, Txoria Nuen Maite tabernan.

ELORRIO antzerkia ‘Ene ba!’ (Txalo produktzioak), 20:30ean, Arriola antzokian.

ELORRIO deialdia Elorrioko dendetan aukerak, EME merkatari elkartearen eskutik, egun osoan zehar. Apirilaren 6an egingo duten 100 euroko bost erosketa bonuen zozketarako txartelak ere banatuko dira, otsailaren 28tik apirilaren 4ra artean.

IURRETA ipuinak ‘Basoko paseoa’ (Ane Gebara ipuin kontalaria), 17:30ean, Ibarretxe kultur etxean. 3-4 urteko umeentzat.

‘Ze polita zaren’ ipuin kontaketa, 18:00etan. Bost urtetik gorako neska-mutilentzat.

IURRETA ipuinak Helduentzako ipuin kontalaria: ‘Viejos cuentos de nuevo’ (Pep Bruno ipuin kontalaria), 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

Otsailaren 29an

BERRIZ ipuinak Ipuin txokoa: ‘Berkak eta kontuak’ (Yolanda Arrieta), 12:15ean, Berrizko Kultur Etxean.

BERRIZ antzerkia ‘Imbebible’ antzezlan, 20:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

DURANGO musika 40 Minutu Rock: Rotten XIII + The Potes + Mafalda + Mocker’s + Tribade + Arkada Social + Kaleko Urdangak + Tremenda Jauria +Tximeleta + Skaiketan + Soziedad Alkoholika + Green Valley, 10:30ean hasita, Landako Gunean.

DURANGO antzerkia ‘El patio de mi casa’ (Pez Limbo Teatro), 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

DURANGO musika Intxaurregae: Mudo Selettah, 23:30etan, Intxaurre herriko tabernan.

DURANGO bisita gidatua ‘Aztarnak denboran zehar’ (Mª Jesus Cuetoaren lanak) erakusketaren bisita gidatua, 12:00etan, Arte eta Historia Musean.

ELORRIO ibilaldia Mendi ibilbidea: Urkiola-Urkiolamendi-Zabalandi-Andasto-Arrazola, Mendi Lagun ekimenaren eskutik. Irteera: Madalena, 08:40eko autobusean. Buelta, 13:45ean Arrazolako autobusean. Hamaiketako egingo dute Arrazolako elkartearen.

ZALDIBAR txapelketa Zaldibarko Frontenis Txapelketa Mistoa, Olazar pilotalekuan (bikotea 15 euro).

Martxoaren 3an

ZORNOTZA zinekluba ‘La hija de un ladrón’, 20:15ean, Zornotza aretoan.

Martxoaren 5ean

ATXONDO tailerra Show Cooking Iñigo Fuertesaren eskutik, 17:30etik 19:00etara, Akebaso jatetxean. Familientzako Elikadura Eskolaren barruan antolatutako tailerra, Durangaldeko Berton Bertokoa dinamikaren eskutik.

MAÑARIA tailerra ‘Gosari, hamarretako eta askari osasuntsuak’ (5etik 14 urtera arteko umei zuzenduta), 17:30etik 19:00etara, liburutegian. Izena emateko azken eguna otsailaren 28a da: udaletxean (07:30etik 11:00etara) edo liburutegian (15:00etatik 19:30era).

ZORNOTZA antzerkia Ash Grunwald, 20:15ean, Zelaieta zentroan. Musika Gertu egitarauaren barruan.

Martxoaren 6ra arte

IURRETA erakusketa ‘El arte de mirar’ (Susana García de Vicuña), Oreka tabernan. Hamar argazkiz osatutako erretratu saila.

Martxoaren 6an

ELORRIO musika Sacco + Kaskezur, 22:00etan, Arriolako Atenean.

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi **agenda@anboto.org** helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Zinema

:: Berriz KULTUR ETXEA

- Richard Jewel**
barikua 28: 22:00
domeka 1: 19:00

:: Durango ZUGAZA

- Especiales**
barikua 28: 19:30/22:00
zapatua 29: 19:30/22:30
domeka 1: 18:30/20:45
astelehena 2: 18:30/21:00
martitzena 3: 20:00
eguztena 4: 20:00
- The gentlemen: los señores de la mafia**
barikua 28: 19:30/22:00
zapatua 29: 19:30/22:30
domeka 1: 18:30/20:45
astelehena 2: 18:30/21:00
martitzena 3: 20:00
eguztena 4: 20:00
- El hombre invisible**
barikua 28: 19:30/22:00
zapatua 29: 17:00/19:30/22:30
domeka 1: 18:15/20:45
astelehena 2: 18:30/21:00
martitzena 3: 20:00
eguztena 4: 20:00
- Quackers: la leyenda de los patos**
zapatua 29: 17:00
domeka 1: 16:30
- Boonie bears: abentura historiaurrean**
zapatua 29: 17:00
domeka 1: 16:30

:: Elorrio ARRIOLA

- Adu**
zapatua 29: 22:00
domeka 1: 20:00
astelehena 2: 20:00

:: Zornotza ARETOA

- Parásitos**
barikua 28: 20:15
domeka 1: 20:00
astelehena 2: 20:15
- Spy cat**
domeka 1: 17:00

Milaka musikazalek Landako Gunea beteko dute beste urte batez, euskal presoen eskubideen aldeko elkartasunezko musika maratoian

Landako Guneak 10:30ean zabalduko ditu ateak; elkartasun jaialdiaren seigarren edizioan, hamazazpi taldek eskainiko dituzte zuzenekoak, jarraian



Huntza, iazko 40 Minutu Rocken.

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Seigarren urtez, 40 Minutu Rock elkartasunezko musika jaialdiak musikazalez beteko du Landako Gunea; izan ere, sarrera guztiak agortuta daude orain dela hainbat astetatik.

Landako Guneak 10:30ean zabalduko ditu ateak, eta, horren ostean, hamazazpi musika taldek ohol-tza nagusi biak eta karpa txikiko taula partekatuko dituzte. Tximeleta talde nafarra arduratuko da ikusle goiztiarrenak dantzan jartzeaz. Urtero legez, musikazaleek zer ikusi eta zer entzun izango dute. Besteak beste, Skakeitan taldea igoko da ohol-tzara. 12:15ean izango da euren emanaldia. Ostean, Rotten XIII taldearen txanda izango da; nafa-

rrak iaz jotzeakoak ziren, baina taldekide baten heriotzagatik euren kontzertua bertan behera geratu zen.

Gero, Mocker's talde durangarrak *Oreka Ahula* aurkeztuko du. Ukitu psikodelikoa emango diote Landako Guneari. Karteleko beterranoen txanda izango da gero: Soziedad Alkoholika. Gasteiztarrek bigarren aldian dute Durangoko elkartasun jaialdian. Hardcore eta metal doinuaren ondoren, The Potes arrasatearrek folk eta rock doinuak eramango dituzte Landakora. Ostean, doinu dantzagarriak punk gogorragaz partekatuko dira Mafalda, Tremenda Jauria, Green Valley eta Tribade taldeekin alde batetik, eta Kaleko Urdangak eta Arkada Social taldeekin bestetik.

“Lehengo punkiek legez, ez dakigu abesten, eta horregatik erabiltzen dugu autotunea”

Tremenda Jauriak kumbiatoi matxinatuagaz dantzan ipiniko ditu, zapatuan, Landakora doazen zaleak; 20:15ean da euren txanda kontzertuetan

MUSIKA • A.M.

Tremenda Jauria madrildarrak etxean legez sentitzen dira 40 Minutu Rock jaialdian. Hasieran, reggaetoi feministak rock doinu tradizionalekin zerikusirik izan ez arren, horrelako jaialdietan bikain moldatzen dira euren zuzeneko dantzagarriek eskerrak. Orain urte bi ez bezala, iluntzean joko dute aurtun.

Zelan gogoratzen duzue aurreko bisita?

Ba, izugarria izan zen. Egia esateko, oso gustuko dugu egunez kontzertuak eskaintzea eta ikusleen aurpegiak ikustea. Mandarinak oparitu zizkiguten, gainera!

“

Oso gustuko dugu egunez kontzertuak eskaintzea eta ikusleen aurpegiak ikustea”

—

Ezagutzen duzue aurtengo ekitaldiko beste talderik?

Bai, ia denak ezagutzen ditugu.



Mafalda eta Tribade taldeek dakartzaten lan berriak ikusteko gogotsu gaude, baita besteren bat ere. **Izenak dioen moduan, jaialdia rock izaeragaz jaio zen. Zelan ikusten**

duzue reggaetoiak, autotuneak edo elektrokunbiak bere lekua egitea jaialdian?

Festibala gustuko dugu, nahiko punkia da eta. Autotunea abesten

ez dakigulako da, punkaren oinarria legez; beraz, gure saltsan gaude.

Zeintzuk izango dira zuen hurrengo erronkak?

Tribadegaz eta Mafaldagaz batera 'Melokotoitzar' bat kalera-tzekoak gara. Gogoa itzela dugu aurkeztu eta jendearen erreakzioa ikusteko.

Ash Grunwald bluesman australiarrak Durangaldea bisitatuko du 'Mojo' diskoaren munduko aurkezpen biraren barruan

Martxoaren 5ean izango da kontzertua, Zornotza Aretoan, 20:15ean; sarrerak sei euroan daude salgai

MUSIKA • A.M.

Grunwald izar bat da Australia sorterrian. Hamar disko kaleratu ditu bere ibilbide artistikoan, eta orain *Mojo* diskoa aurkeztzen dabil mundu osoko aretoetan zehar. Australiarra datorren asteko egunean etorriko da Durangaldera, martxoaren 5ean. Horren ondoren, Gernikako Lekuek jaialdian joko du. Penintsula zeharkatu eta gero, Herbehereetara joko du, eta handik Australiara itzultzeko da.

Mojo lan berezia da Grunwalden diskografian. Artistaren berbetan, disko honen atzean istorio "berezi" bat dago. Musikalki, bluesa eta psikodelia uztartzen ditu. Horrez gainera, diskoak luxuzko kolaborazioak biltzen ditu. Besteak beste, Joe Bonamassa, Kim Wilson, Kasey Chambers eta The Teskey Brothers artistek parte hartu dute grabazioan. Diskoaren grabazioan ez ezik, Ash Grunwald zuzenekoetan ere aritu da izen handiko artistekin; horrela, James Brown,

The Black Keys eta Bo Diddley artistekin partekatu du oholtza.

Australiako komunikabide espezializatuen esanetan, Grunwalden kontzertuak oso "freskoak" dira, eta gitarristak "berezko trebezia" du publikoagaz konektatzeko.

Artista surflaria

Musikaria izateaz gainera, Grunwald surfzalea ere bada. Oraintsu, surflari musikariei buruzko liburu bat argitaratu du. *Surf by day, jam by night* da liburu hori, eta bertan mu-

Diskoaz gainera, surflari musikariei buruzko liburu bat argitaratu du oraintsu, 15 elkarrizkettatoka

sika eta surfa uztartzen dituzten hamabost lagun elkarrizketatzen ditu Grunwaldek. Besteak beste, Kelly Slater, Stephanie Gilmore, eta Jack Johnson.



Ash Grunwald.

Txalo konpainiak 'Ene ba!' komedia mamitsua antzeztuko du Elorrion

ANTZERKIGINTZA • A.M.

Txalo konpainiaren azken antzezlanak familia afari batean oinarritzen da, eta "hartu-emanak, hipokresia eta beste era bateko gaiak" lantzen ditu. *Ene ba!* Elorrioko Arriola antzokian egongo da ikusgai, gaur, otsailak 28, 20:30ean.

Ane Gabarain, Joxe Kruz Gurrutxaga, Mikel Laskurain, Susana Soletto eta Asier Sota dira aktoreak. Zuzendari lanak Begoña Bilbao egin ditu.

Txalo konpainiak otsailaren 28an eskainiko du bere azkenengo lana, 20:30ean

Mahai bueltan sortuko diren eztabaidek trumoi hotsa eragingo dute, umore ikuspegitik

"Trumoi hotsak"

Gai erakargarri bategaz ekingo diote antzezlanari. Joxe Kruz Gurrutxaga eta Susana Soletto aita-amak izatekoak dira. Familia bazkari batean, umeari ipiniko dioten izenari buruz berba egiten hasiko dira eta giroa gaiztotu egingo da berehala. "Eztabaidaren suak denak erreko ditu, eta trumoi hotsa entzungo da, umore ikuspegitik", azaldu dute egileek.



'Ene ba!'.



OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404



Ibai Ondo
Sarraigintza • Burdindegia



Geriza
mantentze-lanak eta instalazioak

KOMUNITATEENTZAKO
MANTENTZE ZERBITZUA
SEGURTASUN KAMERAK

Iturriza, 10 • 946 824 489 • BERRIZ • ferreteriaibaiondo@gmail.com

Euskal gatazka abiapuntu hartuta, 'Harri orri ar' antzezlanak elkarbizitzari buruzko gogoeta dakar

Gasteizko Principal antzokian estreinatu eta Bilboko Arriagatik igaro eta gero, 'Harri orri ar' obra Durangoko San Agustin kulturgunean ikusi daiteke, zapatuan; Pez Limbo taldeak sortu du lana, 'Antzerkigintza Berriak' programaren barruan

ANTZERKIGINTZA • A.M.

Harri orri ar antzezlanak 2010eko irailaren 5a du abiapuntu. Maria Goirizelaia antzezlanaren sortzaile eta zuzendariak ETak su-etena iragarri osteko elkarbizitza aro berriari buruz idatzi du. Istorioak pentsaera politiko desberdina duten zazpi lagun aurrez aurre ipiniko ditu, Bilboko jolastoki batean; haurtzaroko jolasen bitartez, pertsonaiak aurrez aurre ipiniko dira, eta baita bakoitzaren ideiak ere. Horrela, Goirizelaia gogoetarako gune bat zabaldu gura dio ikusleari patioan. "Ideologia desberdineko pertsonak elkarbizitzan batzen dituen espazioa da patioa, enpatia-eriketa bat", adierazi du Goirizelaia. "Besteari begietara begiratuta, zauriak sendatu gura dituen antzerki ikuskizun bat da", gaineratu du.

Esandako moduan, zazpi lagunek hezurmamitzen dituzte protagonistak; Iñake Irastorza, Nagor Gonzalez, Martxelo Rubio, Josune Velez de Mendizabal, Haizea

Baiges, Jontxu Martinez eta Egoitz Sanchez dira aktore lanak egingo dituztenak.

Antzerkigintza berriak

El patio de mi casa 'Antzerkigintza

berriak' ekimenaren barruan hautaturiko proiektua da. Bilboko Arriaga, Donostiako Victoria Eugenia eta Gasteizko Principal antzokiek elkarregaz ekoitzi dute lana. Obra euskaraz eta gaztelaniaz

eskainiko dute. Durangokoa gaztelaniaz izango da. Bilbon eta Donostian antzeztu eta gero heldu da Durangora. Gero, Basurin, Ermuan, Zornotzan, Santurtzin eta Ordizian egingo dituzte emanaldiak.



'Harri orri ar'.

Banarte antzerki taldearen '¡Ese no!' antzezlana estreinatuko dute zapatuan

Abadiñoko Errota kultur etxean estreinatuko dute Banarteren komedia berria, 19:00etan



'¡Ese no!'.

ANTZERKIGINTZA • A.M.

Lagun arteko afari bat da Banarte taldearen antzezlanaren ardatza; tartean, bikote bat dago, euren lehenengo umea edukitzekotan dagoena. Umearen izena aukeratzeko, joko bat proposatuko du aita izango denak. Aurretik itxi bako zauriak zabalduko ditu jokoak, eta hainbat egoera bitxi taularatuko dituzte obran zehar.

Rafa Herceek idatzi du testua, eta Sonia Villamor arduratu da zuzendaritza lanez. Aktore lanetan, Herce gainera, Dolma Romera, Eduardo Pombar, Jon Amas eta Maria Otxandiano aritu dira.

Aurretik, *Guernica 1913* eta *Comunicado de Muerte* lanak egin ditu Banartek.

Gai librea

Ritxi Blanco Aguilera
Ikerlaria



Apologiak (II): Dischord

Oso ondo gogoratzen dut nire izateak distortsioarekin benetako sinbiosia sentitu zuen lehenengo aldia. 14 urte izango nituen, eta nire lagun guztiak Euskal Rock Erradikalaren moda eternalean itota zeuden jada. Gordintasuna behar nuen arren, erantzunik gabeko galderak pilatzen hasi zitzaizkidan eta, musikatik haratago, beste dialektika eredu bat eskatzen zuen nire nerabezeroak.

Orduan heldu zen Minor Threat hardcore-punk taldearen diskografia oparitu zidaten giga erdiko mp3-ra. Ezin nuen sinetsi: berehalakotasuna, amorrua eta, aldi berean, ispilu filosofiko bat nire belarrietan barrena. Benetako tatuaje bat, tinta bako arrazoi uholdea.

Tankerako taldeak aurkitu nahian, Dischord Records zigilu independentearen parte zirela ezagutu nuen. Izan ere, Ian MacKaye Minor Threat eta Fugaziren abeslari berak 1980an Washingtonen sortutako kolektiboa zen Dischord, diskoe-txe arrunt baten muga guztiak lehertzen zituen horietakoa. Desadostasun akordeak ez ezik, bizitza ulertzeko ekosistema bat izateko ondu zen, horren sinple bezain poliedrikoa: autogestioaren muturreko apologia eta praktika, kontraesanen bizitzeko halabeharrezko ikasketa ziklikoa, forma geometriko horizontalen ezinezko poesia. Iraultza ez delako boterea esku-ratzea, boterea suntsitzea bai-zik. Musika ez da salbuespena.

40 urte beteko ditu aurten Dischordek. Norbanako askoren pentsamendua erabat eta betiko eraldatu duen kaos logiko eta kontrolatua. Utopian urtzen den ezohiko geografia ideologikoa. Zorretan gaude.

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko altzairuen lakadura eta guztietako zaharberritzeak egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A, Berriz - Tel./Fax: 946 824 143
Mug: 658 758 421 - info@jaiobarnizatuak.com - www-jaiobarnizatuak.com

ALDEKOA-OTALORA iturgintza

BEROKUNTZA - AIREA - GASA
INDUSTRI MANTENTZEA

info@aldekoaptalora.com

Zubiakurte, 8. IURRETA

946 202 768

Arzubia 10 B industrialdea, 13-14 pabiloiak ABADIÑO

944 071 791 - 692 859 779

Oraindik ez dituzu Anbotoko albisteak whatsappez jasotzen?

Batu Anboto-ko whatsapp-era!




Bidali ALTA
688 635 041
telefono zenbakira

Izan zaitez berriemaile ere:
Bidali zure argazki eta bideoak

“30 minutuko langa nuen buruan; bi-hiru urtean entrenatu naiz hori lortzeko”

Urtarrilean, Aitor Mimenzak ordu erdi azpitik amaitu zuen Valentziako 10 kilometroko proba



Aitor Mimenza Castillo
Durango Kirol Taldeko
korrikalaria
Elorrio | 1991

KORRIKALARIA • JOSEBA DERTEANO
Korrikalari gutxi dago errepidean 10 kilometroko proba bat ordu erditik behera amaitu dutela esan dezaketenak, eta Aitor Mimenza da euretariko bat. Korrikalari elorriarrek Valentzian lortu zuen aspalditik bila zebilen marka.

29.37, horixe da denbora, ezta?
Ofiziala, bai. Denbora erreala 29.33 da. Jende askoko lasterketetan, aurre-aurrean irten ezik geroago abiatzen zara eta desfase bat egoten da. **Ordu erditik jaistera joan zinen ala horrela irten zitzazun ?**

Ondo entrenatuta nindoan eta 30 minutuko langa nuen buruan. Azken bi-hiru urteetan, hori lortzeko entrenatu naiz. Banuen ordu erditik jaisteko asmoa, baina ez nuen uste hain denbora ona lortuko nuenik. **Beraz, zu zeu ere harritu zintuen lortutako denborak.** Bai. Gainera, erlojurik barik korritzekoa naiz eta 200 bat metroren faltan helmugako erlojua ikusi nuen, "Aitor, sekulakoa egin behar duzu gaur", pentsatu nuen. **Aipatu duzunez, aspalditik lortu guran zenbiltzan erronka zen.**

Nik eta atleta askok, esango nuke. Ez dakit zerbait psikologikoa den ala zer, baina 30 minutuko langa jaisteko nahi hori beti dago hor. Urtean atleta dezente ahalegintzen dira horretan. Nik, azkenean, lortu dut eta ez nuke esango pisu bat kendu dudarik gainera, baina, tira, entrenamenduek bere fruitua eman dutela bai, behintzat. **Datuak daudenetik, Durangaldeko korrikalarien artean zeurea da denborarik onena.** Ez diet horrelako gauzei begiratzen, baina, egia esan, denbora hori lortu nuenean hainbat zorion mezu

jaso nituen eta esan zidaten eskualdean ez zutela horrelako beste markarik gogoratzen. Ez dakit berriro denbora horretara hurreratuko naizen, baina hau behintzat hor geratuko da.

Marka hori oraindino hobetu dezakezula sentitzen duzu?

Sentipena dut Valentzian nahiko osorik heldu nintzela helmugara. Banekien lasterketa irabazi zuen emakumearen helburua ordu erditik jaistea zela. Haren taldean sartu eta zazpigarren kilometrora arte, taldearen babesean, sentsazio onekin eta indartsu joan nintzen. Azkenengo hiru kilometroetan aurrera egin nuen eta, bai, justuan heldu nintzen, baina, zozortxo gordeta aldi berean.

Atleta askoren kasuan, 30 minutuko langa jaisteko nahia hor egoten da beti”

Bartzelonako maratoni erdian ere denbora harrigarria lortu zenuen orain asteburu bi: 1.06.36.

Pozik eta gustura nago, baina uste dut apur bat azkarrago korritzeko moduan nengoela. Valentziakoaren ondoren, gorputza apur bat erlaxatu egin zitzaidan. Baina Javier Fontanadak Bartzelonara joatea gomendatu zidan. Gero, lasterketa bera ez zen perfektua izan. Taldetik kanpora geratu nintzen, denbora asko aurpegia ematen, haize dezente...

Javier Fontaneda aipatu duzu. Zelako garrantzia izan du zure ibilbidean?

Handia. Bera barik ez nuen lortuko lortu dudana. Oier Ariznabarreta, Dabid Garcia, Iñigo Olano, ni neu... eguaztenero batzen gara Durangon, eta Fontanadak gidatzen ditu entrenamenduak.

EUSKAL ATLETARIK ONENAK 10 KM-TAN

1. **Hamid, Ben Daoud:**
28.06
(Laredon, 2019an)
2. **El Hassan Oubaddi:**
28.54
(Laredon, 2019an)
3. **Iban Fernandez:**
29.22
(Santa Polan, 2020an)
4. **Aitor Mimenza:**
29.37
(Valentzian, 2020an)
5. **Iraitz Arrospe:**
29.38
(Donostian, 2020an)

DURANGALDEKOEN DENBORARIK ONENAK

1. **Aitor Mimenza:**
29.37
(Valentzian, 2020an)
2. **Dabid Garcia:**
30.28
(Laredon, 2018an)
3. **Txomin Marañon:**
31.29
(Laredon, 2017an)
4. **David Rua:**
31.30
(Laredon, 2017an)
5. **Javier Fontaneda:**
32.13
(Laredon, 2018an)
6. **Juan Manuel Bragado:**
33.44
(Laredon, 2012an)
7. **Luis Narbaiza:**
34.33
(Laredon, 2013an)

* Iturria: Euskadiko Atletismo Federazioa. 2004tik honako datuak, datuak digitalizatzen hasi zirenetik honekakoak

Pistan, Javier Fontanedarena da hamar kilometroko probako Bizkaiko errekorra 1985etik hona

Hainbat urtean Euskal Herriko denborarik onena ere izan zen, harik eta Martin Fizek hobetu zuen arte. Vigon, Espainiako txapelketa batean lortu zuen Fontanadak marka: 28.45.57.

Aitor Mimenzak errepidean lortutako marka azpimarragarria da, baina beste hainbeste esan daiteke Javier Fontanadak 1985ean Vigoko pistan lortutakoari buruz ere. Espainiako txapelketa zen eta honako denboran osatu zituen 10 kilometroak: 28.45.57. Orduan, 24 urte zituen.

Ondo gogoan du denbora hori. "Horrelakoak ez dira sekula ahazten", dio. Marka horregaz, Durango Kirol Taldeko korrikalariak Biz-

kaiko eta Euskadiko errekorrak ipini zituen. Urte batzuk geroago, Martin Fizek Euskadikoa hobetu zuen, baina euskal atleta batek distantzia horretan duen markarik onetarikoa izaten jarraitzen du. Bizkaiko markak, oster, oraindino indarrean dirau. 35 urtean ez du inork ere hobetu. Fontanadak ondo ezagutzen du Mimenza, eguaztenero Durangoko atletismo pistan batzen diren atletariko bat delako,

eta elorriarrak Valentziako denbora hobetu dezakeela uste du. "Marka hobeak lortzera helduko da, egiten duenagaz oso konprometitu dagoelako. Gogor entrenatzen da", dio Elorrioren lan egiten duen gertxotarrak. Fontaneda lesio batetik errekuaritzen ari da. Horregatik, aurtun ezingo du master mailako munduko txapelketan parte hartu. Txapelketa horretan, Espainiako errekor bi lortu zituen iaz.



Javier Fontaneda, lasterketa batean.

Elordi eta Etxebarria iazko binakako promozio mailako txapeldunek titulua berresteko aukera dute

Gaur iluntzean jokatu dute Larrabetzun finalurrekoetako lehenengo partidua Aitor Elordik eta Oier Etxebarriak

PILOTA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Binakako promozio mailako txapelketa aurrera doa eta asteburu honetan finalurreko ligaxkagaz hasiko dira. Gaur, Aitor Elordi mallabitarrak eta Oier Etxebarria igorreztarak, iazko binakako promozio mailako txapeldunek, finalurrekoetako lehenengo partidua jokatu dute Larrabetzun. Mallabitarrak adierazi duenez, txapelketa "luzea" izan da eta "kosta" egin zaie finalurrekoetarako azken puntua lortzea. "Aurreko urteekin alderatuta, txapelketa luzea izan da, buelta bira jokatu dugu eta. Ederto hasi genuen txapelketa; lehenengo itzulian ezin hobeto aritu ginen, baina bigarren itzulian gorabeherak izan ditugu, eta kostatu egin

zaigu finalurrekoetarako azken puntu hori lortzea", aitortu du Elordik. Finalurrekoetarako puntua lortzea "gatx" egin zaien arren, ligaxkarako "gogotsu" daudela dio mallabitarrak. "Badakigu bikote indartsuak ditugula aurkari eta oso partidua gogorrak izango direla,

Finalurrekoetarako azken puntua lortzea "kosta" egin zaiela aitortu du Elordik

baina behin hemen egonda dena ematea izango da gure helburua", azaldu du Elordik.

Titulua berresteko aukerei dago-kienez, "ezer ez" dutela galtzeko eta ahaleginduko direla esan du.



Aitor Elordik binakako partidua jokatu du, gaur, Larrabetzun.

Jokaldia

Unai Zamalloa
Zubiaurre
Saskibaloia



Denboraldi erdian

Urtero lege, denboraldiko sasoi honetan, gure taldeen egoerari buruz arituko gara. Une garrantzitsuak eta erabakiorrak dira hemendik aurrerakoak.

Zilarrezko LEB mailan, Zornotzako taldea urte latza ari zela pasatzen esaten genuen iazko sasoi honetan, baina aurtengoa oraindik latzagoa da. Lehenengo faseko sailkapenean, azken geratu ziren, aurreko taldeak baino garaipen bat gutxiagorekin. Sailkapen honek hurrengo faserako jaitsiera playoff-ean. A-2an, azken aurreko hirugarren postuan hasiera derrigortzen du, eta, beraz, fase honetako partiduen erdiak irabazi behar ditu. Zaila eta gogorra, baina azken minutura arte borrokan arituko dira. Aurrera, Zornotza!

Tabirakoko mutilak, EBA mailara itzulita, denboraldi borrokatuan ari dira, buru-belarri. Zaila da benetan egoera, azkeneko lau-bost taldeak zuzenean jaitsiko dira eta. Hau da, kategoria horretan talde dezentek galduko dute maila. Momentu honetan, bi garaipenera dago egoera hau ekiditeko. Hurrengo partiduetan, etxeko zein kanpoko garaipenak beharrezkoak izango dira, are gehiago sailkapenean gure parera dauden taldeen aurka. Aurrera, mutilak!

Tabirakoko neskak, oster, seigarren postuan daude sailkatuta une honetan. Oraindik egutegiko bigarren itzuli osoa geratzen da, eta, azken urteetan gertatu den moduan, gora igotzeko play-offetan sartzeko aukerak dituzte oraindik. Azkenengo urteetan lortutakoa normaltasun osoz hartu izan da, baina oso zaila da. Ia aurten ere, euren lan gogorrek emaitza handi horiek ematen dituen. Aurrera, neskak!

Asteko kirolaria

"Abenduan Valentziara joan eta Sevillako marka hobetzea izango da nire helburua"

Oier Ariznabarretak minutu eta 15 segundotan hobetu du iazko bere maratoi marka, Sevillan

Oier Ariznabarreta durangarrak iaz izan zuen estreinaldia maratoi batean, Sevillako maratoiaren hain zuzen ere. Aurten, bertara itzuli eta bere marka minutu eta hamabost segundotan ondu du. Sevillako maratoiako 42 kilometroak 2.17.43ko denboran osatu ditu.

2.17.43ko denboran osatu dituzu Sevillako maratoiako 42 kilometroak. Itxarondako emaitza izan da? Aurtengo entrenamenduak iazkoak baino askoz hobeak izan dira, eta, beraz, hori ikusita, marka berdina egiteko edo segundo batzuetan hobetzeko asmoagaz joan nintzen Sevillara. Baina kontuan hartuta Espainian jokatu dako

azkenengo maratoiak zela Tokioko Olinpiar Jokoetara sailkatzeko, ni baino bizkorrago korrika egiten duen jende dezentetara joan zen.

Lasterketa eurekin hasi nuen eta lehenengo bost kilometroak oso arin egin genituen. Baina orduan konturatu nintzen taldetxo ez zela neuretzako modukoa, eta beste batek gaz gelditu nintzen. 20 bat kilometro bigarren talde horretako korrikalarietara egin nituen, eta, gero, talde hori atzean utzi eta aurrerago zihoan taldetxo bat harrapatu nuen.

Iazko denbora minutu eta hamabost segundotan hobetzea gauza handia izango da, ezta?

Egia esan, bai, eta oso pozik nago

lortutakoagaz. Lehenengo bost kilometroetan esfortzu handia egin nuen, eta gero gai izan nintzen horri buelta eman eta behar nuen energia berriro ateratzeko.

Iaz lehenengoz parte hartu zenuen maratoi batean, Sevillan. Aurten ere bertara itzuli zara. Sevillako lasterketa Oier Ariznabarretaren urteroko proba bat izatera helduko da?

Sevilla gustuko dut. Oso hiri polita da eta esango nuke datorren urtean ere errepikatuko dudala. Hala ere, abenduan Valentziara joan eta Sevillako marka hobetzea izango da nire helburua. Valentziako zirkuitua bizkorragoa da, eta aukera aproposa izan daiteke



OIER ARIZNABARRETA AGIRRE

Durango, 1983

marka hobetzeko. Baina, bestela, Sevillakoa lasterketa fetitxea izango da niretzat.

Datozen hileetan non ikusiko zaitugu, mendian ala asfaltoan?

Orain berriro mendian zentratuko naiz, eta asteburuan Aian izango dut lehenengo lasterketa. Urteko helburu nagusiak Espainiako Kopa, Espainiako Txapelketa eta Zegama-Aizkorri izango dira. Zegama-Aizkorrigaz arantzatzeko bat sartuta daukat, eta hori kendu gura nuke.

hitz liburutegia
artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburutegia.com

#salduenak

1^o MIÑAN
Amets Arzallus & Ibrahima Balde (Susa)

2^o AITAREN ETXEA
Karmele Jaio (Elkar)

3^o AIREA EZ DA DEBALDE
Joseba Sarrionandia (Pamiela)

CERAMICAS
MACOBER

**ZERAMIKA ETA GRESA
DEKORAZIOA ETA APAINKETA
ERAIKUNTZAKO MATERIALA**

1300 m² BILTEGI - 800 m² ERAKUSKETA


Eitua indust., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890 www.macober.com

PLAZAN BAZAN

www.plazanbazan.eus
Egilea: Garbine Ubeda (Aiturri)

Irudi engainariak

Zortzi zati hauetatik hiru irudi nagusitik hartuta daude eta gainerako bostak engainariak dira, hau da, antz handia izan arren, ez datoz bat irudi nagusiarekin. Identifika itzazu.



Esaera zaharrak

Esaldi hauek bat etor litezke marrazkiak adierazten duenarekin, baina denak ez dira esaera zaharrak. Zehazki esanda, erdiak asmatuak dira. Bereiziko al dituzu?

1 Martxoko eguzkia, txarren txarrena

2 Apirilean ezin jakin noiz izango den ateri

3 Maitasuna eta gorrotoa bezala, eguzkia eta euria, elkarren kontrario

4 Apirila euritsu, urtea kakatsu

5 Eguzkia eta euri, martxoko eguraldi


6 Euriak ez daki eguzkia ahaltsuagoa dela

SUDOKUA



Txinako kondaira baten arabera, Lu Mei neskatoak asmatu zuen aterkia, oso aspaldi. Erronka bota omen zion anaiari, euri az babesteko tresna onena zeinek asmatuko, eta berak irabazi.

Osa ezazu sudokua, ATERKI hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (A, T, E, R, K eta I). Gogoratu, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.



Marraztu zure mozerro-jantzirik gustukoena.

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ez. • 48200 DURANGO

ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • **www.fernandouribe.es**

DURANGO
3 logela
ERMODO: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela terrazagaz. 21 m²-ko ganbara. Garaje itxia.
290.000€ / C.E.E=E

DURANGO
3 logela
TABIRA: 3 logela, komuna, sukalde handia eta egongela terrazagaz. Ganbara.
C.E.E=F 200.000€

ZALDIBAR
ZALDIBAR: Euskal Herria kalea. Berriztatua. Trasteleku handia. Eguzkitsua. Bizitzen sartzeko moduan. Ikuspegiak.
C.E.E=F 115.000€

IURRETA
3 logela
111 m²
AMILBURU PLAZA: 111 m². 3 logela, 2 komun, sukaldea terrazagaz eta egongela handia. Ganbara eta garajea.
C.E.E=E 265.000€

DURANGO
3 logela
DURANGO: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du.
C.E.E=F 115.000€

DURANGO
3 logela
KURUTZIAGA: 3 logela, komuna eta sukalde-jangela. Terraza. Igogailua.
C.E.E=E 140.000€

//ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Askatasun Etorbidea. Etxebizitza ederra. 135m². 4 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiagaz eta egongela. Garajea eta ganbara. Argitsua.

DURANGO: Askatasun Etorbidea. Berriztatua. 3 logela, 2 komun eta sukalde-egongela. Balkoia.

DURANGO: Antso Estegiz. 3 logelako pisu ederra. Sukalde berria, komuna eta egongela. Ikuspegi ederrak.

DURANGO: Eraiki berria, 2 eta 3 logela. Azkeneko 3 etxebizitzak salgai. 178.000 €-tik hasita.

DURANGO: Komentukalea. 2 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Eguzkitsua. Igogailua eta gasa. 150.000 €.

DURANGO: Jose Miel Barandiaran. Etxebizitza ederra. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Garajea eta trastelekua. Durango erdian.

DURANGO: Komentukalea. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Ganbara. Ikuspegi ederrak.

DURANGO: Hegoalde kalean. Eraikin txikia. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobe.

BERRIZ

Elizondo etxetaldea: Pisu guztiz eguzkitsua. Egongela, jangela, sukaldea, 2 komun eta 3 logela. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

ZALDIBAR: 3 logela, bainugela, sukaldea eta egongela balkoiagaz. Berriztatua. Trastelekua.

//LURSAILAK SALGAI

DURANGO: 2.360 m²-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Zarratua eta zuhaitzekin. Eskaintza paregabea.

GAZTELUA: 10.000 m²-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Leku onean. Egokia.

ABADIÑO: 1.000 m²-ko lursaila salgai. Bifamiliarra eraikitzeko baimenagaz. Zonalde egokia.

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

ABADIÑO: Bifamiliarra eraikitzeko lursaila, 1.000m². Informazio pertsonalizatua.

AMOREBIETA. EUBA: Txalet bifamiliarra eraikitzeko lursaila. 3.000 m²-ko lursaila.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MAÑARIA: Baserrira salgai. Herrian bertan. 3.000 m²-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.

ELORRIO: Aldape auzoa. Baserrira berriztatzeko. 3 hektareako lursaila. Prezioa: 125.000 €

ATXONDO: Baserrir ikusgarria Martzaa auzoan. 15.000 m²-ko lursaila. Teilatua berriztuta. Zonalde egokia.

MENDATA: Lamikiz auzunea. Baserrir bifamiliarra. Berriztatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Eraikin txiki ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatzeko.

BERRIZ: Baserrir ederra, Murgoiotioko zonaldean. 3 hektareako lursaila.

//BULEGOAK ALOKAIRUAN

ABADIÑO: 40 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIRUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

MATIENA: 460 m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmoduranguesado.com

DURANGO
51 m²
DURANGO: Arriluzea. 51 m². Logela, sukalde jangela, egongela eta komuna. Garajea.
169.000 €. C.E: bidean.

IURRETA
59,61 m²
IURRETA: Uralde. 59,61 m². 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Balkoia. Gas naturaleko berogailua. Igogailua. Guztiz jantzita.
152.000 € C.E.E:E

DURANGO
4 logela
100 m²
DURANGO: Goien. 100 m². 4 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Gas naturaleko berogailua. Garajea aukeran.
150.000 € C.E.E:E

DURANGO
3 logela
60 m²
SAN FAUSTO: 60 m². 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Trasteleku txikia. Igogailua jartzeko aukeragaz.
95.000 € C.E:G

ZALDIBAR
3 logela
59 m²
ZALDIBAR: 59 m². 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Balkoia. Lursaila 40 m² ortua ipintzeko edo jolaserako.
84.000€ C.E:G

MATIENA
2 logela
52 m²
MATIENA: AUKERA. 52 m². 2 logela, egongela, sukalde handia eta komuna. Ganbara. Etxe osoak kanpora ematen du. Berriztatzeko.
C.E: bidean. 73.000€ / NEG.

//DURANGO

ANTSO ESTEGIZ: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **160.000 € / E.E.Z=E**

ERRETENTXU: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta igogailua. **190.000 € / E.E.Z=E** Garaje itxia aukeran.

KOMENTUKALEA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Igogailua. **160.000 € / E.E.Z= G**

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeko 600m²-ko lurzorua. **640.000 €**

SASIKOA: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. Igogailua. Garajea eta ganbara. **270.000 € / E.E.Z= E**

TXATXIENA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. Garajea eta trastelekua. **390.000 € / E.E.Z=E**

//ABADIÑO

ZELETABE: 3 logela, egongela, sukaldea, 3 komun, terraza, garajea eta trastelekua. LEHEN 342.576 € / ORAIN **278.000€ / E.E.Z=E**

//BERRIZ

BERRIZBEITIA KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. **120.000 € / / E.E.Z=F**

ERROTATXO KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. LEHEN 95.000 € / ORAIN **85.000 € E.E.Z=E**

ERROTATXO KALEA: 2 logela, sukaldea balkoiagaz, egongela eta komuna. **100.000 € / E.E.Z=G**

LEARRETA MARKINA: 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia. **102.000 € / E.E.Z=E**

SARRIA AUZO: Baserrira 4.000 m²-ko lur sailagaz. **400.000 € / E.E.Z=E**

//IURRETA

AMILBURU MUSIKARIEN PLAZA: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. Igogailua. Ganbara eta garajea. LEHEN 276.000 € / ORAIN **265.000 € E.E.Z=E**

DANTZARI KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. **93.000 € / E.E.Z=G**

//MATIENA

TXINURRISOLO: 3 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz eta bainugela **200.000 € / E.E.Z=F**

//OTXANDIO

ELIZABARRI: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta lonja **106.000 € / E.E.E=F**

OLETA AUZO: banakako etxebizitza. 460 m² 3 solairutan banatuta. 4 logela, egongela, sukaldea eta 3 komun. Garajea eta txokoa. 5.000 m²-ko lursaila. **480.000 € / E.E.Z=E**

//ELORRIO

BERRIOTXOA: 3 logela, sukaldea, egongela, jangela eta bainugela. **160.000 € / E.E.Z=E**

//ZORNOTZA

SAN PEDRO KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz eta komuna. Garajea eta ganbara. LEHEN 170.000 € / ORAIN **160.000 € E.E.Z=Bidean**

//BERRIAK

//MAÑARIA

ARRUETA AUZO: Etxebizitza bitan banatutako baserrira lurzoruagaz. **220.000 €**

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean



- HIGIEZINAK
- TEKNOLOGIA
- LANA/NEGOZIOAK
- DENETARIK
- IBILGAILUAK
- HARREMANAK
- AISIA/KIROLA
- FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzako. Erregistratu www.anboto.iragakilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio) edo bidali mezua: anboto@anboto.org helbidera. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23 telefono zenbakira.

Paperean, ordainduta: Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereiztua eta lauki batean nabarmenduak. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621. 79 02 telefonoan.

Higiezinak
ETXEBIZITZAK

ETXEBIZITZAK ERRENTAN EMAN

Elorrio. Atiko polita alokatzen da Elorrión...50 m2...igogailua dauka. Tel.: 631 12 31 06

Lana Formakuntza
LAN ESKARIAK

PERTSONAK ZAINDU

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Emakume arduratsu eta esperientzia handikoa lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen, gauzez zein egunez. Gainera, berehala lanean hasteko prest nago. Tel.: 646 35 87 09

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Mutil nikaraguar esperientziaduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan lan egiteko prest. Interesa baduzu, deitu Tel.: 612 53 93 89

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Emakume nikaraguar esperientziaduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan lan egiteko prest. Interesa baduzu, deitu. Tel.: 632 35 60 66

Nagusiak zaintzeko. Ni Maite naiz, San Fauston bizi naiz, Durangon. Esperientzia daukat nagusiak zaintzen eta sukalde lanetan. Goizez zein arratsalde lan egin dezaket. 3

urtean egin dut lan zahar egoitza batean eta esperientzia daukat. Titulua ere badaukat Tel.: 673 68 97 69

Haurrak zaindu. Arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. Etxeko lanekin laguntzeko arazorik gabe. Urteetako esperientzia. Deitu lasai! Tel.: 688 64 06 04

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko zein kanpoko langile moduan lan egiteko prest. Tel.: 612 42 06 78

Haurrak zaindu. Goizetan haurrak zaintzeko eta etxeko lanekin laguntzeko prest dagoen neska elorriarra naiz. Andereño lanean esperientzia dut. Interesa baduzu, deitu lasai. Tel.: 678 213 547

IRAKASKUNTZA

Klase Partikularrak Natur Zientzietan. DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko ikasleei klase partikular pertsonalizatuak emateko prest nago. Biologia Gradua eta DBH eta Batxilergoan irakasle izateko Masterduna, ingeles C1 maila. Ikasleak, ikasketa teknikan, edozein zientziatiko eta matematikako irakasgaiekin lagun ditzaket. Durango eta inguruetan lan egingo nuke. Kontaktuan jartzeko: deitu edo Whatsapp idatzi Tel: 688 64 59 83 zenbakira.

Goi mailako ziklo eta unibertsitate mailako klaseak ematen dira.

Algebra, kalkulua, marrazketa teknikoak, estatistika, kontabilitateko klaseak ematen dira. Goizez zein arratsalde, talde txikian eta bakarka. Tel.: 946 550 268

Euskara Irakaslea. Euskal Filologia duen irakasle bat behar dut, C1 azterketa prestatzeko. Tel.: 676 57 94 44

LAN ESKAINTZAK

Anbotok banatzailea behar du Atxondon

Banatzailea behar da barikuetan alea banatzeko. Beharrezkoa da euskaraz jakitea. Interesatuak deitu. Tel.: 665 71 09 31

ETXEKO LANAK

Umeak zaindu eta etxeko lanak egin. 59 urteko andra euskalduna umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest (Durangaldea) Urte askotako esperientzia eta erreferentziak. Arantza Tel.: 636 44 82 11

PERTSONAK ZAINDU

Barneko langile gisa lan bila. Barneko zein kanpoko langile gisa lan bila ari naiz. Orduka ere lan egiteko prest. Adinekoak edo haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Deitu: 643 72 71 98

Pertsona nagusiak zaintzeko. Neska euskalduna naiz eta esperientzia daukat zaintzaile gisa. Eusko Jaurlaritzaren habilitazioa ere badut. Pertsonak zaintzeko prest nago, etxean, ospitaleetan, edonon... ordu solteak, lanaldi osoa... Tel.: 658 03 08 36

Pertsona heldua zaintzeko pertsona bat behar da. Ataunen baserri batean pertsona heldu bat zaintzeko lanaldi erdirako pertsona bat behar da, berehala hasteko. Kotxe propioa izatea baldintza ezinbestekoa da. Tel.: 653 74 49 88

IRAKASKUNTZA

Portugesezko klase partikularrak. Irakasle portugesa behar da klase partikularrak emateko Durangon. Tel.: 678 29 11 67

Frantsesa praktikatzeko berbala-gun bila nabil. Frantsesa ikasten ari

naiz, eta antzeko interesa duen Durango inguruko norbaitekin harremanetan jarri nahiko nuke, elkarrekin hitz egiten mintzaira eta ulermena hobetzeko asmoz. Tel.: 617 37 89 33

Klase partikularrak (LH/DBH).

Lehen hezkuntzako edo DBHko 1go edo 2. mailako ikasleei edozein irakasgaietako lanak egiten laguntzeko edo azterketak prestatzeko prest nagoen 17 urteko neska bat naiz. Aurretik beste ume batzuekin lan egin dut. Orain, zientzia batxilergoko 2. maila egiten ari naiz. Informazio gehiago eskuratzeko, Tel.: 651 30 62 34

Euskara Irakaslea. Euskal Filologia duen irakasle bat behar dut, C1 azterketa prestatzeko. Tel.: 676 579 444

Denerik

SALDU/EROSI

Ecofit plus ohe artikulatua salgai. Somier eta koltxoiaekin. Gaixo dauden eta mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako egokia. Egoera oso onean. Argazkiak whatsapp bidez. Tel.: 675 71 34 01

ERRENTAN

Estetika kabina alokatzen da Elorrión. Hornitua eta funtzionamenduan. Bezero finkoak ditu eta bezero kopurua handitzeko aukera ematen du; izan ere, estetika kabina ileapaindegi barruan dago. Tel.: 649 77 83 93



DURANGALDEAN **ESTETIKAREKIN,**
ZERIKUSIA DUEN **NEGOZIORIK BADUZU,**
JARRI EZAZU ZURE IRAGARKIA ANBOTON
Informazio gehiago **94 621 79 02** telefono zenbakian

Botikak

BARIKUA, 28 · 09:00-09:00

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - **DURANGO**

GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

ZAPATUA, 29 · 09:00-09:00

NAVARRO Artekalea 6 - **DURANGO**

GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-13:30

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - **DURANGO**

ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - **DURANGO**

DE DIEGO Intxaurreondo 22. - **DURANGO**

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - **DURANGO**

UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - **DURANGO**

BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA Berrio-Otxoa 6 - **ELORRIO**

EGUREN, ISABEL Trañabarren 15. - **ABADIÑO**

MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-14:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

DOMEKA, 1 · 09:00-09:00

MUGICA Andra Maria 9 - **DURANGO**

GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ASTELEHENA, 2 · 09:00-09:00

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - **DURANGO**

MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

MARTITZENA, 3 · 09:00-09:00

DE DIEGO Intxaurreondo 22. - **DURANGO**

MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

EGUAZTENA, 4 09:00-09:00

SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - **DURANGO**

MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

EGUENA, 5 · 09:00-09:00

MUGICA Andra Maria 9 - **DURANGO**

MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

Zorion Agurrak



GOZATU
GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Intza (794. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9 an.



Zorionak, **Simone**! Gure etxeko sorginek 6 urte ein abezan astelehenien. Mosu handi-handi bat Liamen, eta etxeko danon partez!



Zorionak, sorgintxu! Edarto paseu egune. Mosu handi bat danon partez, bereziki Iparren eta Paultxon partez!



Otsailaren 23an 10 urte bete zenituen. Zorionak eta musu handi bat aita, ama eta zure nebaren partez.

Eguraldia

ZAPATUA 🌡️ 14° / 8° ☁️	ASTELEHENA 🌡️ 12° / 7° ☁️	EGUAZTENA 🌡️ 18° / 9° ☁️
DOMEKA 🌡️ 13° / 6° ☁️	MARTITZENA 🌡️ 13° / 6° ☁️	EGUENA 🌡️ 12° / 7° ☁️

Eskelak



Juan Jose Urizar Zabala
"Soloa"

2020ko otsailaren 23an hil da 67 urterekin

Abadiñoko lorategiak loran eta dantzariak dantzan ipini ittuan


Agurra zapatuan, otsailak 29, Ferialekuan, 12:00etan



Maribi Juaristi Anitua

Oiz ostetik haiziek datozenero, zugaz akordauko gara

Zure seme-alaben lagunak



katerin ardoak
iñaki uribe

25^{urte} Saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak
Delicatessena - Ardotegia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

uxarte
SAGARDAOGINTZA

Montorra, 6 ZORNOTZA - Tel.: 946 308 815
www.uxarte.com

ZABALIK
OSTIRALETAN ETA
ASTEURUETAN

ASTEAN ZEHAR
ENKARGUZ
Gutxienez 15
lagunekoko taldeentzako

Arrike
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

“Beti pentsatu dut trikitian panderoak agintzen duela; erritmoak agintzen du”

Panderoa jotzen irakasten 25 urte daramatza Ainhoa Bereinkuak. Gaur egun, Durangon pandero ikastaroak ematen ditu eta lurretako Maiztegi eskolan eskolaumeekin jarduten du. 50 bat ikasle ditu, 6-7 urtetik 60 urtera bitartekoak

Ainhoa Bereinkua Astorkia Durango (1970)
• Panderojolea

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

Trikitia inguratzen duen giroak lagunduta adiskidetu zen panderoagaz Ainhoa Bereinkua. Aitak derrigortuta hasi zen-eta panderoa jotzen. Hala ere, gaur egun, oso ondo pasatzen duela aitortu du. Gazteak En Tol Sarmientoren kanteak motibatzen dituztela dio. Nagusiek, oster, gurago dituzte Xabier Aburruzaga, Kepa Junkera edo Iker Solano. Kainabera, koilarak, txaramela... ere jotzen ditu.

Osasuntsu ikusten duzu panderoa?

Ez du momentu txarra bizi. Sasoi batean, arazoak egon ziren soinua jotzen irakasteko jendea topatzeko, eta, soinularirik ez badago, askoz ere zailagoa da panderoa kalera ateratzea. Biak elkarregaz doaz. Durangaldean badaude trikiti talde gazteak bidea urratu guran.

Ematen du panderoa instrumentu laguntzailea dela. Badu bakarlari izateko gaitasunik?

Bai, badu. Galizian pandeiradek [pandero eta ahotsez osatutako taldea] indar handia dute. Euskal Herrian ez da panderoa bera bakarrik entzuten. Hor dugu Sorginak perkusio taldea. Hala ere, askotan, Kepa Junkeragaz lotzen dugu. Gainera, panderoa aipatzean, txapa mor-

doagaz irudikatzen dugu. Eta ez du zertan horrela izan. Eboluzionatzen joan da, eta aukera zabala da: galiziarak, valentziarrak, asturiarrak... Tolosako Aguirre pandero egileak txapa bikoak egiten zituen. Gura dugun soinuaren arabera egingo dugu aukera.

Itxuraz, erraza da panderoa; xumea, konplikaziorik bakoa...

Oinarrizkoa jotzea erraza da. Abestiari erritmoa atera eta hori eramatea erraza da. Beste kontu bat da panderoak ematen dituen aukerak: bere adornoak ditu, kolpeak, isiluneak... ipinitako grazia.

K a x o i

flamenkoagaz berdin gertatzen da. Izugarri gustatzen zait, eta ez dut arazorik arin-arin bat jotzeko, baina hori baino gehiago da.

Txapelketetan aritua zara?

Ikustera joan naiz, baina inoiz ere ez naute erakarri. Eneritz ahizpagaz jo dut beti gustura. Hartu eman bat sortzen da, feeling bat, soinulariaren eta panderojolearen artean, ohitura kontua da. Ezagutzen dut eta badakit nora joko duen. Ez zait gustatu txapelketetan ikusitakoa, inoiz ere ez ditut ondo ulertu balorazioak.

Zer esan gura duzu?

Askotan sentsazioa dut soinuak eta panderoak egiten duten taldea ez dela osotasunean baloratu. Konplizitatea, jarrera, abes-

teko era... asko baloratzen ditut. Egia da soinulariak pisu handia duela, panderoa horretara moldatzen dela. Baina beti pentsatu dut trikitian panderoak agintzen duela; erritmoak agintzen du.

Hala ere, bigarren mailan geratzen da?

Ez. Txapelketa eta kalejirak mundu bi dira.

Gu ez gara panderoa jotzera mugatzen, ikasleei beti esaten diet. Soinulariak nahikoa du pieza ikasita, panderojoleak erakarri egin behar du, ahotsagaz, aupadekin... jarrera da kontua.

Zer eman dizu panderoak?

Jende asko ezagutzeko aukera, eta bizipoza. Umore txarrean egon zintezke, triste, baina jai giroan murgiltzera, aurpegia aldatzera behartzen zaitu.

Berba bitan

Panderojole bat

Ritxar Cuevas

Abesti bat.

'Urkiolara'

Panderoa ez den instrumentu bat?

Askio daude... soinua

Liburu bat

'La herbolera'

Bidaia bat.

Europako edozein tokitara

Mania bat

Tikismikisa naizela diote

Lau-hortza

Alina Ahtamon Medikua



Ezkontzak

Gure aitite-amamek gaur egungo ezkontzez zer pentsatzen duten jakin nahi nuke. Orain dela hamarkada pare bat edo bi, ezkontzak emakume edo gizonezkoen etxeetan ospatzen ziren. Familia bakoitzak ahal zuen horretan laguntzen zuen; batzuek haragia eramaten zuten ezkontzara, besteek ardoa, eta denen artean egun ederra antolatu eta ospatzen zuten. Festa hauek gero eta famatuagoak dira.

Jakingo duzuenez, ezkontzak, baita beste hainbat gauza ere, negozio bihurtu dira. Zenbat enpresa egongo ote dira Bizkaian ezkontzak antolatzeaz arduratzen direnak. Eta ez hori bakarrik, enpresa horiek batzuetan lekuaz eta janariaraz arduratzen dira soilik; eta argazkilariaz eta dekorazioaz, musikaz eta abarrez arduratzen diren beste ehun enpresa daude.

Hala ere, ezkontzetako zailena ez da antolaketa prozesu hori guztia, baizik eta ezkondu ahal izateko beharrezkoa den dokumentazio guztia lortzea. Azkenengo eskakizun hau are eta zailagoa da ezkontzen diren pertsonak nazionalitate ezberdinekoak badira. Nire txanda da prozesu luze eta harritsu hau bizitzea. Hala ere, inork ere ez dit egunero dudak irribarrea kenduko.

Badakit askok ezkontzak kritikatzeko dituztela, baina, nire ustez, batek ezkontzeko duen arrazoi oso garrantzitsua da: zure bikotekidearekin, familiarekin eta lagunekin egun ahaztezina pasatzeko asmoarekin ezkontzen zara ala egiten duzun guztia besteek gauza bera egiten dutelako da, eta Instagram-en eta Facebook-en argazkiak jotzeko?

OTSAILAK 27 - MARTXOAK 12

NAFAR HEGOALDEKO UZTA
E S K U T I K E S K U R A

GURE HAUTUEZ
HARRO

Nafarroa hegoaldeko
oliba-olio birjina estra
—5 litroko bidioetan— eta
arroza, pasta eta
kontserbak —12 ontako
sortetan— euskaraz
etiketatuta eta ekoizlearen
jatorrizko prezioan
www.errigora.eus

ERRIGORA

